



ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko martxoak 6 · 1388 zenbakia

M8 ANTOLAKETA, ALDAKETARAKO GILTZA

2. betaurreko progresiboa opari

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 93/25

MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2.
EIBAR



hitzordua
eskatu

www.multioplicas.com





Martxoak 8



Ate irekiak, martxoaren 17an, 18:30ean

**BATXILERGO ARTISTIKOA:
ARTE PLASTIKOAK**

Ikastetxea ezagutu eta informazioa
jasotzeko eman izena:
jardinetazuzendaritza@eibarbhi.eus

 **Eibar BHI**

Jardiñeta 3, Eibar 943 89 92 62

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



www.etakitto.eus



Errugbian dihardu Doha Benslaimanek, Idoia Uruñuela triatloilaria da eta Alaitz Ibarrola waterpolo jokalaria. Kirola nola bizi duten eta euren bizitzan duen garrantziaz hitz egin digute, Eibarko emakume kirolarien errealitatea ezagutzuz.



eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Iruñe Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



OHARRA

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarriarik onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

ERREDAKZIOA

Martxoaren 20an ez da alerik egongo

Datorren astean, martxoaren 13an, aldizkaria ohiko moduan aterako da; baina martxoaren 20an ez da aldizkaririk egongo, San Jose zubia dela eta. Hori kontuan izan ezazue, mesedez, oharrak, zorion-agurrak, eskelak... bidaltzera-koan. Eskerrik asko!

ERREDAKZIOA

Hortik esanak



Euskaraz egiten dugu, baina ez osoki: *half & half*. Kafesnea bezala. Batzuetan esne gehiagorekin, beltzagoa besteetan. *Se me escapa* zenbat gaztelania sartzen zaidan egunero, zenbat frantses, *sans m'en rendre compte*. Hori omen naturalena, normalena. Badakizue: *la realidad supera la ficción*. Eta, antza, hizkuntza-alternantzia da gure *superpower*-a. Ez dugu hegan ikasiko sekula, baina, esaldi erdian salto linguistiko ikusgarriak egiten bai.

Goizean, seme zaharrenak esan dit: “*No me da la vida*”. Ohera sartu da eta *frito* geratu da, *como un tronco*. Seme txikiak, berriz, galdera zuzena jaurti dit, inolako filtrorik gabe: “Aita, euskaraz ari gara, ez?”. Eta batek pentsatu dezake: “*Depende del contexto, cariño*”. Hori baita gure mantra berria. Testuingurua. Gure erlijio berria.

IMANOL EPELDE, euskara irakaslea

Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza sarearen berrantolaketa bultzatu du, bereziki ikasle kopurua jaisten ari den testuinguru batean. Jaiotza tasaren beherakada nabarmena da Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta horrek zuzenean eragiten dio ikastetxeen antolaketari. Testuinguru horretan kokatzen dira eskolen fusioak, hezkuntza sistemaren jasangarritasuna eta kalitatea bermatzeko tresna gisa aurkeztuak administrazioaren aldetik.

Jaurlaritzaren diskurtsoak datu demografikoetan du oinarria: jaiotza tasaren beherakada, ikasle gutxiago. Baina arazo estruktural bati irtenbide administratibo hutsa ematea arriskutsua da. Hezkuntza ez da enpresa logikarekin neurtu behar. Ikasle kopuruak ez du irizpide bakarra izan behar eskola baten etorkizuna erabakitzeke orduan. Diskurtsoa ezaguna da. Ikasle gutxi, kostu handiak. Logika horrek hezkuntza merkantzia bihurtzen du. Eskola publikoak ez dira excel taula batean sartzeko zenbaki hutsak.

ARITZA URRENGOETXEA, irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PLOST. → Gauza bigun eta lodiek lurrera jaustean ataratzen duten hotsaren onomatopeia. “Eta hantxe hasi zuan idixa plost-plost-plost gure hantetara kaka egiñian. Barre? Orduan bai barre!”

PLOSTADA. → Kakak lurrera jaustean ateratzen duen hotsa. “Hik daukak osasuna, hik! Hórrek dittuk kaka plostada garauak!”

1956

Goi Argiko emakumeak Ospitalean

Argazkian ikusten dituzuen andra horien eskutik sortu zen Goi Argi emakume elkarte urte batzuk lehenago. Mercedes Kareagak bultzatuta, 1951ko martxoaren 19an inauguratu zen oraindik ere bakarrik emakumeentzat den elkarte, horrelako lehenetarikoa.

FOTOPLAZAOLA.



Farmaziak

BARIXAKU 6
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 8
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ASTELEHENA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 10
EGUNEZ Mendiñeta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 11
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 12
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 13
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Maria Angeles Sanz Adrian**. 93 urte. 2026-II-27.
- **Begoña Artamendi Errasti**. 90 urte. 2026-III-1.
- **Carmen Etxaniz Arruti**. 88 urte. 2026-III-3.
- **Paulino Diez Santamaria "Pirri"**. 78 urte. 2026-III-4.



Errigoraren bi otar eder zozketatuko ditugu etakitto.eus webgunean

S.H....eta kitto! Euskara Elkartek Errigoraren bi otar oparituko ditu, zozketa bitartez. Martxoaren 15era arte hartu daiteke parte zozketan, oso modu errazean: www.etakitto.eus webgunean sartu eta behean aurkituko duzuen ...eta kitto!-ri buruzko galdetegia bete, besterik ez da egin behar. Automatikoki zozketan sartuko zarete eta, sariduna suertatuz gero, Nafarroako produktuekin osatutako otar ederra eramango duzue etxera. Irabazleen izenak martxoaren 16an jakinaraziko ditugu. Zorte on!

Zuhaitz Eguna astebete atzeratu dute eta martxoaren 15ean izango da

S.H.Eibarko Ingurumen Sailak Zuhaitz Egunaren data aldaketa iragarri du eta, horrela, azkenean martxoaren 15ean egingo dela jakinarazi dute, “hasieran aurreikusita zegoen bezala, eta ez martxoaren 8an”. Era berean, Udalak ekimenaren parte hartzeko epea luzatu du, eta izena emateko azken eguna martxoaren 12a, eguna, izango da. Gogorarazi dutenez, plazak mugatuak dira, eta jarduera honetan parte hartu ahal

izateko ezinbestekoa da alde zuretik izena ematea, Lurguia Fundazioan, info@lurguia.org helbidera mezu elektronikoa bidaliz, datu hauekin: parte-hartzaileen izen-abizenak, adina, telefonoa eta aukeraturako elkargunea. Argitu dutenez, izen-ematea behar den moduan gauzatu dela baieztatzeko, onarpenaren berrespena jaso behar da. Izen-emateak martxoaren 12ra arte egin ahal izango dira (12a barne).



‘Oihu Bat Palestinara’ ekimeneko sarrerak Guridin erosi daitezke

S.H. Guridin salgai daude dagoeneko *Oihu Bat Palestinara* kultur ekimeneko sarrerak. Bi sarrera mota eskuratu ahal izango dira: 15 eurokoa eta 25 eurokoa, bakoitzak nahi edo ahal duenaren arabera. Horrez gain, sarrerak online erosteko aukera ere badago, ekimenaren webgunearen bidez. Kultur ekimen hori Euskal Herriko artista eta musikariek antolatu dute, Palestinarekin plataformarekin batera, Palestina-

ren aldeko borroka babesteko eta mobilizazioen ondorioz jarritako isun eta errepresio egoerei aurre egiten laguntzeko. Ekimenaren ardatza martxoaren 21ean egingo den ekitaldia izango da, Landako Gunean, Durangon. Antolatzaileek diotenez, kulturaren bidez Palestinaren aldeko aldarria zabaltzea da helburua, eta Euskal Herriko sortzaile eta musikari ugari egingo dute bat ekimenarekin.



Aurretiazko Borondateen inguruko azalpenak emateko bi saio eskainiko dituzte martxoan, Eibarko Ospitalean

S.H. Debarreneko ESI-ko Osasun Sare Komunitarioak Aurretiazko Borondateen inguruko tailer bat antolatu du, dokumentu hori zer den, zertarako balio duen eta nola egin daitekeen behar bezala ezagutu nahi duten herritarrei zuzenduta. Beste helburu nagusietako bat parte-hartzaileei dokumentua betetzen laguntzea da. Horretarako, atal bakoitza zehaztasunez azalduko da, norberaren erabakiak modu argi, koherente eta balio pertsonalekiko errespetuz adierazi ahal izateko. Tailerrak, halaber, dokumentua erregistratzeko aukera eskainiko du,

beharrezko izapideak une berean egiteko aukerarekin.

Tailerraren helburua da informazio zehatza eskaintzea eta laguntza ematea etorkizuneko osasun-arretari buruzko erabakiak adierazi eta jasota uzteko prozesuan. Jarduera bi saio presentzialetan egingo da, martxoaren 18an eta 31n, 13:00etatik 15:00etara, Eibarko Ospitaleko areto nagusian.

Tailerra Aurretiazko Borondateen dokumentuari buruzko informazio osoa jaso nahi duten guztiei zuzenduta dago, eta dokumentua betetzeko laguntza profesionala jasotzeko aukera eskainiko du.

Herritu ekimenaren aurkezpena egingo da gaur 19:30ean Errebalen

S.H. Gaur (barixakua, martxoak 6) aurkeztuko du Gure Eskuk Herritu izeneko ekimena, 19:30ean Errebalgo plaza estalian. Aurkezpen-ekitaldia herritar guztientzat atekazabalik egingo da eta, besteak beste, ekimenari buruzko azalpenak emango dituzte, eta Herritu ekimena babesten duten Eibarko pertsona ezagunez osatutako haмаikakoa aurkeztuko dute. Hori guztia bertsolarien eta abeslarien parte-hartzearekin lagunduta. Euskal Herriaren burujabetza eta erabakitze eskubidea aldarrikatzeko abiatu berri den ekimena da Herritu. Ekimenaren helburua da norbanako bakoitzak harrotasunez euskal komunitate honen parte dela adieraztea. Horri buruzko xehetasun guztiak barixakuko ekitaldian emango dituzte eta eibartar guztiak bertaratzera gonbidatu dituzte.



LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA

Gaurve

Tfnoa. 943 202 461

Faxa. 943 201 125

Fermin Calbeton, 13-15

www.gaurve.es

Gestilan
asesores

Zezenbide 4 - behea

Tel. 943 20 70 02

Faxa. 943 20 87 92

gestilan@gestilan.es

www.gestilan.es



Emakumeek jasan behar duten desberdintasuna salatu dute pentsiodunek M8aren atarian

SILBIA HERNANDEZ

Aste honetan ere pentsio duinen aldeko kontzentrazioa egin da Untzagan, Eibarko pentsiodunek antolatuta, eta mobilizazioak 150 lagunetik gora elkartu zituen udaletxe pareko plazan. Martxoaren 8an, domeka, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dela eta, EHPM-ko emakumeek Euskal Herriko Mugimendu Feministaren ekimenetan “paper aktiboa” izango dutela adierazi dute aste honetako kontzentrazioan, eta elkarretaratzeko guztietan emakume pentsiodunek jasan behar duten desberdintasuna salatzen duen adierazpena irakurri zuten. Gipuzkoako Pentsiodunek sinatzen duten Martxoaren 8ari buruzko adierazpenean diotenez,

“Martxoaren 8a borroka aktibo eta kolektiboko jardunaldi bihurtu behar dugu, ospakizunetatik harago joanez. Martxoaren 8a omenaldia izatea nahi dugu, urte luzez lortutako eskubideak lortzeko eta horiei eusteko borrokatu duten eta egunero borrokatzen ari diren emakume guztiei”.

Milaka emakume pentsiodunek pentsio kaskarrak, Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino askoz ere txikiagoak kobratzen dituztela salatu nahi dute, “baita gutxieneko pentsioak Lanbidearteko Gutxieneko Soldataraino osatzeko gure proposamenari Eusko Legebiltzarren ezezkia ere, EAJren, PSEren eta VOXen botoen bidez, nahiz eta 145.000 sinadurek baino gehiago

Martxoan sartu berri garen honetan, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren (EHPM) agendan geroz eta hitzordu gehiago pilatzen ari dira. Pentsiodunen beraien berbetan, “pentsio duinen aldeko mobilizazioei berdintasunaren aldekoak eta martxoaren 17ko greba orokorrari lotutakoak gehitu behar zaizkie orain”.

abala eman; eta pentsioen genero-arrakala, 2025. urtearen amaieran, %28koa zela EAEn eta %32koa Nafarroan”.

Hori horrela, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak honako hauek betetzea exijitzen du: 1.500 euroko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata propioa, eta gutxieneko pentsioak horren parekoak izatea, bai EAEn, bai Nafarroan; eta zaintzak negozioa izateari utz diezaiola. Zaintza-sistema publiko, unibertsal eta kalitatezkoa behar dugu”.

Greba Orokorrekin bat

Horrekin batera, martxoaren 17ko greba orokorra prestatzen ari direla ekarri nahi dute gogora: “Martxoaren 17ko greba orokorra, ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek deitua eta EHPMk babestua, bere ardatz nagusi gisa 1.500 euroko gutxieneko soldata propioa du, 14 ordainsaritan. Lantokietatik haragoko greba orokor gisa pentsatua, gehiengo sozial osoa mobilizatzea du helburu, eta pentsiodunen aldarrikapen espezifikoak ere barne hartzen ditu”.



PLAZA MUGATUAK.

Ezinbestekoa da izena ematea info@lurgaia.org-en (martxoaren 12ra arte) eta baita plazaren onarpena jasotzea ere.

8:30

1. Topagunea

Eibarko Klub Deportiboa
(Toribio Etxebarria kalea, 16)
> Ibilbidea oinez (erraza): Jardinetza
- Sakun - Estixako parkea - Iturburu
- Pagaegikortako baserria

9:30

2. Topagunea

Urkoko igoerako
aparkalekuan, Izuan.

Adierazi parte-hartzaileen izen-abizenak, adinak, telefono bat (ezustekoetarako) eta aukeratutako topagunea.

MARTXOAK 15








otsailaren 26tik
martxoaren 18ra
errigora.eus



ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA



Eskatu **Nafarroa** erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz** etiketatuta eta jatorrizko prezioan

SKATE & ROLLER

ASTE SANTUKO KANPUSA



**MARTXOAK 30,31
APIRILAK 1,7,8,9,10**

GOIZEKO KANPUSA:
8:45-13:15

ARRATSALDEKO INTENSIBOA:
15:45-17:45



IPAR

IZEN EMATEAK:
679 51 35 92

ek!

**Zure publizitatea
herriko aldizkarian**

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus



LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK

**EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK**

Entregatuak etxera

“Ez da mugikorra bakarrik: uste duguna baino lehen hasten dira arrisku digitalak”

MARIO MARTÍNEZ • CiberTutor Fundazioa



Altxau Burua taldeak, Eibarko Udalaren laguntzarekin, “Nola babestu gure seme-alabak interneten arriskuetatik” hitzaldia antolatu du martxoaren 12rako, 18:00etatik 20:00etara, Portalean. Saioa etxetik jarraitu ahal izango da ere. Hizlaria CiberTutor Fundazioko Mario Martínez Correas izango da, eta berarekin solasean aritu gara.

Testua **ANA AIZPURUA RUBIO**

Ba al dago benetako arriskurik gatzetxoek sare sozialak eta bestelako plataformak erabiltzean?

Bai, eta askotan nerabezaroan baino lehenago hasten dira. Uste dugu arriskua mugikor propioa dutenean hasten dela, baina ez da horrela. Etxean bideo-kontsola bat edo Smart TV baten nabigatzailea izate hutsarekin, umeek bilaketak egin ditzakete. Eskolan beste haur batek zerbait aipatu badie, jakin-minagatik klik egin dezakete. Zure seme-alabari gailu bat ematen diozunean (bideo-kontsola, tableta, mugikorra, eReader-a, erloju adimenduna, etab.), berehala eta doan pornografia unibertso oso batera sarbidea ematen ari zara, esate baterako. Arriskua benetakoa da, eta pixka bat informatzen den edonork ikus dezake.

Zuen Fundazioaren misioa da gurasoei arazo hau konpontzen laguntzea. Nola egiten duzue hori?

Gu ez gara psikologoak; ikuspegi teknologikotik egiten dugu lan. Guraso eta tutoreei azaltzen diegu zeintzuk diren arriskuak eta zein den industria batzuen funtzionamendua: sare sozialak, online jokoak edota pornografia. Industria horiek arreta erakartzeko eta erabiltzaileak pantailari itsatsita egoteko diseinatuta daude. Hor sartzen da Adimen Artifizial (AA) estraktiboa deitzen duguna: dopamina-puntak sortzen ditu, eta erabiltzailea “engantxatuta” uzten du. Jende askok ez ditu dinamika horiek ezagutzen, eta hori da azaldu behar duguna. Online pornografiaren kasuan argi ikusten da adingabeengana lehenbailehen iristeko estrategia dagoela. Edukiak umeentzako pertsonaiekin nahasten dira, esaterako Bob Esponja bezalako



“Sare sozialak eta beste plataformak arreta erakartzeko eta erabiltzaileak pantailari itsatsita egoteko diseinatuta daude”

marrazki bizidunak jarrera pornografikoetan agertuz. Umeak marrazki bizidunen bila ari dira, eta filtrorik ez badago, halako edukiekin topo egin dezakete. Horrek jakin-mina pizten du, eta gero eta gehiago bilatzera eramaten ditu. Industria hori jendeak uste baino askoz handiagoa da.

Filtroak jartzeaz hitz egiten duzunean, zertaz ari zara zehazki?

Gure lana da lehenik gurasoen begiak irekitzea. Askok badakite arriskuak badaudela, baina ez dute neurria ezagutzen. Lehen pausoa kontzientzia hartzea da; ondoren, neurriak jartzea. Neurri horiek teknologikoak dira, eta doakoak zein eskuragarriak dira. Arazo handiena informazio falta da: ez dakigu zein arrisku dagoen, eta ez dakigu zein tresna erabili. Guk ez dugu arazoa azaltzen soilik; irtenbidea ere ematen dugu. Hitzaldietara etortzen den edonork arratsalde berean konfiguratu ditzake babes-neurriak etxean. Helburua da asmoa duen gurasoak benetako tresnak izatea seme-alabak babesteko.

Gurasoek filtro horiek jarri nahi badituzte, aditu teknologikoa izan behar dute?


Ez, inondik inora ere ez. Gure saioak publiko orokorrarentzat dira. Tresnak errazak dira: haurrentzako hodeiko kontuak, adibidez Google-ren Family Link, Microsoft-en Family Safety edo Apple-en Family Sharing. Gainera, enpresa horien araudiek diote 14 urtetik beherakoek derrigorrez haurrentzako kontu bat izan behar dutela. Hala ere, askotan umeek helduen kontuak sortzen dituzte eta Internet modu irekian erabiltzen dute, inolako iragazkirik gabe. Irtenbideak badaude; falta dena informazioa da.

Zeintzuk dira Interneteko arrisku-eragile nagusiak?

Jendeak askotan beste erabiltzaileak aipatzen ditu lehenengo: pantailaren beste aldean dagoen pertsona ezezaguna. Hori arriskutsua izan daiteke, baina ez da arrisku bakarra. Bigarren eragilea, gutxi aipatzen dena, AA estraktiboa da. 2010etik aurrera estandarizatu zen plataforma guztietan: sare sozialetan, jokoetan eta pornografian. Plataformak berez ez du ezer egiten; edukiekin ere ez bakarrik. Erabiltzaileak AA estraktiboarekin duen interakzioa da gakoa. AA horrek “scroll infinitua” sortzen du, erabiltzailearen profila egiten du, eta bere ahulezia psikologikoak identifikatzen ditu, dopamina-puntak eragiteko. Denborarekin, erabiltzaileak mundu errealetik deskonektatzen doa, sari azkar eta etengabea pantailan bakarrik aurkitzen duelako.

Nor dago horren atzean?

Negozio-eredua bera. Plataforma guztiek dirua irabazten dute AA erauzlearen bidez. Erabiltzaileak ez



“Arazo handiena informazio falta da: ez dakigu zein arrisku dagoen, eta ez dakigu zein tresna erabili”

“Arriskua non dagoen argi erakutsi nahi dugu, eta gurasoei tresnak eman seme-alabak babesteko”

gara bezeroak; produktua gara. Inork ez du ordaintzen sare sozialak edo pornografia erabiltzeagatik. Industria hauek pantaila-denbora fabrikatuz bizi dira. Gu irina bagina bezala erabiltzen gaituzte, ogia egiteko. AA estraktiboak minutuak sortzen ditu; minutu horiek iragarleei saltzen zaizkie, eta hor dago benetako diru-sarrera.

Beraz, zure iritziz hor dago benetako arazoa, interakzio-mota horretan.

Nire ustez, zalantza barik, benetako eztabaida AA estraktiboaren ingurukoa da. Baina gaur gaurkoz, online negozio gehienek oinarria denez, inork gutxi jartzen du zalantzan. Guk, behintzat, arriskua non dagoen argi erakutsi nahi dugu, eta gurasoei tresnak eman seme-alabak babesteko.

KALEAN DA EIBARKO 24. KORRIKA KULTURALAREN EGITARAUUA

Hilabete osoa hartuko
duen egitaraua antolatu
du Eibarko AEK-k herriko
hainbat eragilarekin
elkarlanean.



Eibarko kaleak berriro euskarazko kulturaz eta parte-hartzeaz beteko dira: otsailaren 28an hasi zen 24. Korrika Kulturalaren egitaraua, eta martxoaren 28ra bitartean hilabete osoko eskaintza zabala prestatu du Korrika Batzordeak.

Zehazki, Soraluezko Udalak, Eibarren AKE-BAI-k, Eibarko Klub Deportiboak, UEUK, AEK-k, Jaixak Herrixak Herrixandakok, Arrate Kultur Elkartek, ...eta kitto! Eus-kara Elkartek, Eibarko Mendiak Bizirik-ek eta Eibarko Udalak antolatu dute edizio honetako egitaraua.

Egitarau osoa:

- Martxoak 7, zapatua:

**BASALGO PROIEKTUARI EZ-
ELKARRETARATZEA.**

09:30 - Topinburu (Irteera Urkizutik)

- Martxoak 10, martitzena:

KAKA ANTZEZLANA 19:00 Coliseo Antzokia

- Martxoak 10, martitzena:

MATTIN IÑIGUEZ. Proiektzioa eta solasaldia
19:00 - Portaleko Areto nagusia

- Martxoak 11, eguena:

BARREDROMOA. Bakarrizketa-saioa
19:00 - Depor Tabernan

- Martxoak 16, astelehena:

BARRY BARREZ - UMOREZKO BAKARRIZKETA
19:00 - Beleko Taberna

- Martxoak 26, eguena:

KORRIKA TXIKIA EIBARREN
15:15ean hasita - Erdigunea

- Martxoak 26, eguena:

**EGUEN ZURI. ARGAZKI ERAKUSKETA ETA HI-
TZALDIA** - 19:00 - Topaleku

- Martxoak 28, zapatua: **KORRIKA
EGUNA EIBARREN - EGUN OSOKO EGITARAUUA** -
21:30ean Korrika

ZOZKETA BEREZIA

KORRIKAKO PRODUKTUAK IRABAZTEKO AUKERA

...eta kitto! Euskara
Elkarteak zozketa
berezia jarri du
martxan, AEK-k
antolatzen duen
24. Korrikaren
produktu
sortarekin.

Zozketaren
bidez, honakoak
irabazteko
aukera izango
da: kamisetak,
sudadera, buff-a,
giltzatakoak,
txapela
eta petoak.



ANIMATU ETA PARTE HARTU!

Nahikoa da **etakitto.eus** webgunean izena ematea,
eta automatikoki sartuko zara zozketan.

Astelehenean hasiko da Zaporeak Debarrena erronkarako janari-bilketa

Greziako kanpalekuetarako elikagaiak eta funtsak biltzeko helburuarekin, Zaporeak Debarrena erronka solidarioaren aurkezpena egin dute aste honetan Eibarko udaletxeko udalbatza aretoan. Ekimenaren arduradunen, eskualdeko alkateen eta laguntzaile askoren parte-hartzea izan du ekitaldiak.

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



Eguazten arratsaldean egindako aurkezpenean adierazi zutenez, azken urteotan bezala, aurtan ere Eibarko Udalarren eta Debarrenen beste hainbat udalen babesa izango du Zaporeak elkarteak sustatutako ekimenak. Lesbosen (Grezia) dauden errefuxiatuei jaten eman ahal izateko janari-bilketa astelehenean (martxoak 9) hasiko da herri guztietan, eta martxoaren 12ra arte jasoko dute janaria, datozen egunotan iragarriko diren tokietan. Aurreko edizioetan bezala, herri bakoitzean elikagai bat bilduko da: Eibarren, pardina dilistak; Elgoibarren, garbantz pedrosillanoa; Mallabian eta Mendaron, hodi erako makarroiak; Ermuan, Deban eta Soraluzen, arroz luzea; eta, Mutrikun, arrain-kontserbak.

Eibarren, ikastetxe guztietan, jubilatuen zentro guztietan, Torrekuan zabaldu berri duten Garagunean eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak, besteak beste, jasoko dituzte herritarrek emandako pardina-dilistak, baita Zaporeak elkarteak asteburuan zabalduko duten dendan ere (Calbeton kalean, Larra-gest parean).

Horrekin batera, erronkaren harira rifak saltzen ari dira boluntario eta lagunek. Erron-



Orain dela ia hamar urte abiatutako Zaporeak elkartearen proiektua aurrera ateratzeko ezinbestekoak dira boluntario-sareak egiten duen lana eta herritarrek ematen duten laguntza. Bakarrik horrela egin zaio aurre gaur egun 1,5 milioi euroko aurrekontua duen egitasmoari.

SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA

karen amaieran egingo duten zozketako saridunek Eibar eta inguruko artisten lanak, eta erronkarekin bat egin duten jatetxeetan afariak irabaziko dituzte. Rifan salmentari esker biltzen den dirua, berriz, Debabarreneko erronkaren baitan biltzen den janaria eta bestelako materiala Greziako errefuxiatuei bidaltzeak eragiten dituen garraio-gastuei aurre egiteko erabiliko dute.

Ekarpen horiez gainera, dohaintza ekonomikoak ere egin ahal izango dira, kanpainarako prestatutako kontuaren bidez (ES53 2100 2724 8101 0066 3988). Esan dutenez, “modu horretan, laguntzaren irismena handitzea eta logistika eta hornikuntza-beharrak asetzea erraztuko da”.

Debabarrenean 25.000 kilo janari bildu eta iazkoa gaingitzea helburu

Aurtengo ediziorako jarritako helburua anbizio handikoa da: aurreko urteetan bildutakoa gaingitu nahi da, eta helburu gisa 25.000 kilo elikagai lortzea ezarri dute. Kopuru horri esker, hilabete inguruan ziurtatuko lirateke otorduak Greziako kanpalekuetan. Esan dutenez, egunero 2.300 otordu inguru ari dira ematen gaur egun. Ezarritako helburua betetzeko, antolatzaileek eta Eibarko Udalak berariaz egiten diete dei enpresei, ikastetxeei eta beste kolektibo batzuei ekimen

Eibarko ikastetxeetan, jubiletxeetan, Garagunean, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta beste hainbat tokitan jasoko dituzte pardina dilistak

solidarioan parte har dezaten, eta euren es-tablezimenduetan elikagai-bilketak antolatu ditzaten, “dohaintzak sustatuz, bazkide eginez edo egokien deritzoten moduan inplikatur”. Ekimenaren bultzatzaile nagusienetako bat den Mireia Alonso sukaldariak, errefuxiatuek denon laguntza behar dutela azpimarratu nahi du, han dauden egoera benetan latza baita. Aurrekoetan bezala herritarren erantzuna “oso ona” izatea espero dute, helburua betetzeko.

Erronkari amaiera emateko, tuper solidarioa egingo da, eta aurtan Eibarren izango da ekitaldia, martxoaren 14an (zapatua), Erreal Plazan, 12:30etik 15:00etara

Menua oilaskoa arrozarekin eta fruta ale bat izango da, 5 euroko prezioan. Gainera, artelanak eta afariak zozketatuko dira, eta Eibarko talde ezberdinen emanaldiak ere egongo dira (Kaleetan Kantuz taldeak eta Untzaga gizarte etxeko abesbatzak kantatuko dute, eta Kubantzari taldeak salsa dantzatuko du).



Eibarko raketistak Groseko frontoian (1938). PASCUAL MARIN, KUTXA FOTOTEKA

Eibarko frontoi zaharra deskribatzen dute. Gerra garaian frontoiari zatia kendu zioten etxe bat eraikitzeko. Eibarko raketista eta pilotari ugari joan zen kanpora bizitzera. Eibarko pilotarien maisua Fernando "Tximinua" izan zen. Beste pilotari batzuk izendatzen dituzte.

Eibarko frontoi zaharra eta raketistak

Mari Carmen Agirre Berezibar
(1924 – 2023)



Gurasoak Elorrio ingurukoak zituen, baina gazterik etorri ziren Eibarrera eta bertan jaio ziren Mari Carmen eta bere anai-arrebak. Untzagan jaio zen eta bertan bizi izan da beti, Txoko taberna gaineko etxeetan. Untzaga ingurua eta bertan gertatutakoak ondo baino hobeto ezagutzen ditu. Aitak, Eugenio "Elorrixok", ile-apaindegia zuen Untzagan bertan. 13 urte eskas zituela harrapatu zuen gerrak eta lanean hasi behar izan zuen: umezain, BH lantegian, dendari... Elkarrizketa egiteko orduan Julita Arregi Etxeberria izan zuen lagun Mari Carmenek (eskuinekoa).

Mari Carmen Agirreri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Frontoi Zaharra aittatu dozue. Frontoi Zaharra be famosua zan] Bai. [Zelakua zan inguru hori? Ze eitten zan han?] Ba han, frontoi ederra zan, e, eder-eder-ederra. Eskolia ein eben harutzatzuao. Hori zan oso... Julita: Baiña eskolia onduan jeuanan ezta frontoia? Mari Carmen: Ez. Oso luzia zonan hori. Frontoi ederra. (...) Julita: Lehen zenbat jente Eibarretikan, bai gizonak eta bai andrak, raketistak, zenbat! Sevillara, Madrillera, Barzelonara... "Pero" mordua. Gurekin jokuan eitten dau batek, Mari Karmen Ojanguren, hori be raketista Madridera joan zan eta hantxe ezkondu zan madrileño batekin. Mari Carmen: Neuk be lehengusiña bi, hor bizi zana, labanderia-ta, gero Madrillen bizi zan señora. Julita: Suertia eindakuak asko, e. Mari Carmen: "Eran gemelas", Aureli ta Emili. Eta jun zian Madridera; baiña antziñan, e. Ba treintaiunuan edo dosan edo jun zian Madridera. Eta oso pelotari on-onak, ta fiñak, eta hantxe bizi zien gero Madriden.(...)

LERA! MARTXOAREN 8AN, BER

Emakumeen Nazioarteko Egunari loturiko atala hondu du ...eta kitto! Euskara Elkartek. Atalean aurkituko dituzue egunari lotutako ekintzak, Marasmia, Matraka eta Itaia taldeei egindako elkarrizketak, Naia Torrealdairen solasaldia, iritzi artikuluak, eta emakume kirolarien solasaldia.

Atal honek Eibarko emakumeen protagonismoa eta feminismoaren presentzia modu zabalean eta anitzera erakusten du, irakurleei ekintzak, esperientziak eta ikuspegi kritikoak hurbiltzeko.

RIRO KALERA! MARTXOAREN 8AN, BERRIRO KA

RIRO KALERA! MARTXOAREN 8AN, BERRIRO KA

IERAI MARTXOAREN 8AN, BER





Askotariko jarduerak feminismoa aitortu eta indartzeko

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Martxoaren 8a izango da domekan, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, baina horren inguruko ekintzak ez dira egun horretara mugatuko, oraindik asko dago eta aldarrikatzeko, aitortzeko eta indartzeko. Hilabete hasieratik izan ditugu Martxoaren 8aren inguruko jarduerak eta horrela izaten jarraituko du, hilaren amaierara arte askotariko ekintzak egingo baitira.

Eibarko M8 lantaldeak aliantza feministak izan ditu ardatz aurten-go programazioa prestatzeko orduan, “ikuspegi integratzaile eta dekolonial batetik landuta”, feminismoa aitortzeko eta indartzeko helburuarekin. Astelehenean eman zitzaion hasiera egitarauari ‘Greba orokor feministarantz’ erakusketarekin, non David Beorlegi Zarranzek ibilbide kronologiko eta tematiko bat proposatzen duen emakumeak protagonista izan diren hainbat mobilizazio-esperientzia publikoari hurbiltzeko. Hilaren 31ra arte egongo da zabalik Andretxean, 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era.

Atzo, martxoak 5, Naia Torreal dai Mandalunizek ‘Amaieratik hasi. Euskal feminismoa, aldaketarako paradigma’ liburua aurkeztu zuen eta gaur, hilak 6, Maria Villalobos Gilek genero-indarkeria aztertuko du, 18:00etan, Andretxean, ‘Aliantza estrategikoak genero-indarkeria bikario eta instituzionalak desagerrarazteko’ izenburuko hitzaldian (gazteleraz).

Domekan, martxoak 8, hurrengo orrietan azalduko dugun bezala, mobilizazioak egingo dira egunean zehar.

M8 lantaldearen programazioarekin jarraituz, martxoaren 13an, 18:30ean, Portalean, Zine Forum Feminista egingo da ‘She said’ pelikularen inguruan.

Hurrengo egunean, hilak 14, Antzerki Laborategi Feminista egingo da 11:00etatik 13:00etara, Andretxean, Aitziber Eguskiza Samosen eskutik. “Gestalt-aren printzipioekin bat egiten du, eta kontzientzia fisikoa, emozionala eta mentala hartzea du helburu”, antolatzaileen berbetan. Doakoa izango da, baina ezinbestekoa izango da izena ematea, martxoaren 13ra arte, Andretxean bertan, andretxea@eibar.eus helbidera idatzita edo 943 54 39 38 edo 688 85 34 40 telefonoetara deituta.



Liburutegian genero-berdintasuna sustatzen duten liburuen aurkeraketa egin dute. Museoa, berriz, familia-tailerra egingo da.



Domeka horretan, 15ean, emakumeen mendiko ibilaldia eta topaketa egingo da, 10:00etatik 13:00etara, Deporren atarian hasita. “Elkarrekin sortzen dugun energia guztia sentitzeko jai giroko eguna izango da. Aliantza bat sortu nahi dugu, batzen gaituen guztia kon-tuan hartuz, jaio garen lekua, kultura edo adina aintzat hartu barik”, diote antolatzaileek. Parte-hartzea libre-a izango da, baina alde z aurretik izena ematea eskatzen dute, martxoaren 13a baino lehen, Andretxean edo lehen eman ditugu helbidean edo telefonoetan.

Martxoaren 19an beste erakusketa bat zabalduko da, 18:00etan, kasu honetan Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan. ‘Zaintzaren taupada’ izango da bere izenburua, eta zaintza lanez arduratzen diren emakume migratuak izango dira protagonista. Hilaren 24an, ‘Nevenka’ pelikula egongo da aztergai ‘Emakumeak historia egiten’ izeneko saioan. Andretxean izango da, 17:00etatik 19:00etara. Lantaldearen egitarauarekin amaitzeko, 26an, 19:00etan, ‘Lolak’ kolektiboaren ‘Zan-buila’ antzezlan-a egongo da ikusgai Coliseoan, Irene Hernandorekin.

Irakurketa Gida Feminista

Udal Liburutegiak modu aktiboan hartu du parte lantaldean, bereziki genero-berdintasuna sustatu eta ahots anitz eta feministak ikusgarri egiteko irakurketa gida

baten prestaketan. ‘M8. Aliantza feministak. Beste mundu bat feminismotik’ gidak hainbat generotako lanen hautaketa eskaintzen du (saiakera, fikzioa, ikuspegi kritikoak eta egungo eztabaidak), feminismoaren, berdintasunaren eta emakumeen zein pertsona anitzen esperientzien inguruko alderdi ezberdinak jorratzen dituztenak.

Zumbatoi morea

Bihar, hilak 7, ‘Zumbatoi morea’ izeneko ekimena egingo dela iragarri dute Eibarko Udalak eta Neledantza Udal Dantza Eskolak. Errebal Plazan izango da, 11:00etatik 12:15era. Aurreko edizioetan bezala, animatzen diren guztiek izango dute parte hartzeko aukera.

Familia-tailerra museoa


Eibarko Armagintzaren Museoa familia-tailerra antolatu du Martxoaren 8aren harira. ‘Zer-nolako beharra emakumeena!’ izeneko tailerra bihar egingo da, 17:00etan, eta ekintza bi zatitan banatuko da: emakumeen irudiekin eta hainbat lanbiderekin osatutako Memory jolasa; eta bisita gidatua, Eibarko industriaren bilakaeran emakumeen presentzia arreta jarritz.

Doako jarduera izango da, euskaraz eta 90 minutuko iraupena izango du. Izena emateko museoa@eibar.eus helbidera idatzi daiteke.

Marasmia, belaunaldi arteko feminismoa antolatzeko espazio berria Eibarren

Greba Orokor Feministaren ondoren sortutako taldeak belaunaldi arteko antolakuntza eta indarkeria matxistaren aurkako lana jarri ditu erdigunean. Martxoak 8 honetan egitarau bateratua sortu dute Matraka Gazte Feminista taldearekin elkarlanean.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**



Otsailaren 20an aurkeztu zuten Eibarren Marasmia talde feminista berria, eta harrerak ezustean harrapatu ditu taldekideak. Belaunaldi aniztasuna ardatz, oinarri ideologikoak zainduz eta indarkeria matxistaren aurkako lana helburu, feminismoan antolatzeko espazio egonkorra eraikitzea dute xede. Martxoaren 8ari begira, Matraka taldearekin elkarlanean jardungo dute. Marasmia taldearen inguruko xehetasun gehiago azaldu dizkigute Naia Kortaberria eta Ale Arriola taldekideek.

Zein testuingurutan sortu da Marasmia?

ALE: Batik bat, Greba Orokor Feministaren fruitu izan da. Greba antolatze bileretan konturatu ginen Eibarren bazegoela feminismoan militatzeko gogo zuen emakume* multzo bat, eta belaunaldi ezberdinak elkartuko zituen espazio baten beharra azaleratu zen. Behar horri erantzuteko asmoz, urtebeteko prozesua abiatu genuen orain arte.

Zein hutsune identifikatu zenuten herrian?

NAIA: Eibarren potentzialtasun handia dago, M8an edo erasoen aurrean ikusten den bezala. Baita beste hainbat eragile sozialetan aktiboki dauden emakumeekin* ere. Hori dela eta, feminismoan antolatze espazio egonkor eta in-

tergenerazional bat falta zela ikusi genuen.

Zein da belaunaldi aniztasunaren garrantzia?

NAIA: Antolatzea ez da gazteen kontua soilik. Feminismoan aritzeko adin mugarik ez dagoela aldarrikatu nahi dugu, eta are gutxiago sistema gero eta bortitzagoa den honetan. Horregatik, badakigu ez dela erronka erraza, baina horretan gabiltza.

Zer-nolako harremana izango duzue Matraka taldearekin?

NAIA: Aliatu estrategikoa da. Publiko desberdinengana heltzen gara, baina une jakinetan elkarlanean arituko gara formakuntzetan, mobilizazioetan eta egun seinaltuetan.

Zein izango da M8ko egitaraua?

ALE: Marasmia eta Matraka elkarlanean aritu gara eta guk ere EHko Mugimendu Feministak argitaratutako irakurketarekin bat egin dugu. Aurtengo irakurketak Euskal Herriko Mugimendu Feministak indarkeria matxista gaitzetsi, nazioarteko elkartasuna adierazi eta instituzioei zein gizonei dagokien ardura hartzea exijitzen die, feminismoa eta antiarrazismoa oinarri



Naia Kortaberria eta Ale Arriola Marasmia talde feministako kideak. IRATI ALVAREZ

hartuta, mobilizazioaren eta antolakuntzaren bidez beste mundu justuago bat eraikitzeko deia eginez. Irakurketa horren baitan, egun osoko egitaraua antolatu dugu: kafe-

tertulia, manifestazioa eta bazkari autogestionatua.

Epe ertainera, zein dira erronkak?

NAIA: Taldea sendotzea eta kide berriak batzea. Ideia asko ditugu, eta udaberrirako ekintza bat prestatzeko asmotan gabiltza.

Zein mezu zabaldu nahi duzue?

ALE: Eibar eta Euskal Herri feminista posible direla, eta Marasmia talde feministaemakume* guztientzat espazio irekia dela, elkarrekin ikasi eta indartzeko helburua duena.

"Antolatzea ez da gazteen kontua soilik. Feminismoan aritzeko adin mugarik ez dagoela aldarrikatu nahi dugu"



MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Eman tokia berdintasunari

Emakumeen eskubideak esparru guztietara zabaltzen jarrai dezagun.



araba *álava*
Euzko Legebiltzaria



GIPUZKOA
Euzko Legebiltzaria



KRISTIÑA FIDALGO eta AICHA HAMIDEDDINE • ITAIA Emakumeon Antolakunde Sozialista

“Martxoaren 8a borrokarako eguna da, ez ospakizun hutsa”

Esplotazio ekonomikoaren eta indarkeria matxistaren aurrean, emakume langileak lehen lerroan egon behar direla defendatu dute Kristiña Fidalgo eta Aicha Hamideddine Itaiako kideek. Testuinguru politiko gero eta erreakzionarioagoan, antolakuntza sozialista defendatu dute askapenerako tresna gisa.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Emakumeen Nazioarteko Egunari begira, kaleak berriz ere emakume langileen aldarritz betetzeko deia egin dute Kristiña Fidalgo eta Aicha Hamideddinek, Itaia Emakume Antolakunde Sozialistako kideek. Ideia matxista eta faxisten normalizazioaren aurrean, emakume langileen antolakuntza politikoa ezinbestekotzat jo dute, bai indarkeria matxistari aurre egiteko, bai lan eta bizi baldintzen okertzeari erantzuteko. El-karrizketa honetan, Itaiaren proposamen politikoa, sozialismoaren aldeko apustua eta Debabarrenean Martxoaren 8aren bueltan antolatutako egitaraua izan dituzte hizpide.

Martxoaren 8an kaleak hartuko dituzue berriz ere, emakume langileen alde. Badago horretarako nahikoa motibo, ezta?

KRISTIÑA: Bai. Azken garaiotan ideia faxista eta matxisten normalizazioa eta hedapena bizitzen ari gara, eta horrek zuzenean eragiten digu emakume langileoi. Kapitalismoak ideia horiek erabiltzen ditu emakume langileok are gehiago zapaltzeko: lan prekarioak, zaintza zerbitzuen pribatizazioa eta murrizketak dira nagusi. Horren aurrean, ezinbestekoa da emakume langileok lehen lerroan egotea gure eskubide politiko eta ekonomikoen alde borrokan, baita indarkeria matxistaren aurka ere. Martxoaren 8a borrokarako eta gure miseriaren erantzuleak seinaltatzeko eguna dela uste dugu, ez ospakizun hutsa.

Emakume langileen lan eta bizi baldintzak okertzen ari direla diozue. Zer ikusten duzue inguruan?

AICHA: Bereziki adierazgarria da zaintza-lanetan ikusten dena: lan baldintza oso gogorrak, kontratu partzialak edo kontraturik eza, batez ere emakume migratuen kasuan, eta eskubide politiko oso mugatuak. Langileen borrokak kriminalizatu egiten dira edo gutxieneko zerbitzu oso altuak ezartzen dira. Abortua ere ez dago guztiz bermatuta: egoera irregularrean dauden emakumeek zailtasunak dituzte, eta negozio iturri izaten jarraitzen du arlo pribatuarentzat, kliniken aurrean jazarpenei aurre egin behar dieten bitartean.

Zergatik jartzen duzue arreta berezia emakume migranteengan?

KRISTIÑA: Politika instituzionalek kanpoan utzi dituzte emakume proletarizatuenen interesak. Horregatik, gure proposamen politikoan ezinbestekoa da egoera okerrean dauden emakumeen problematikei erantzutea, haiekin batera beren bizi baldintzen eta eskubide politikoaren alde borrokatuz. Zaintzak edo paperik ez izatea ez dira oztopo izan behar parte hartze politikorako.

‘Emakume langileok askatzeko batu borrokara’ le-mapean egingo dituzue manifestazioak. Zergatik sozialismoa?

AICHA: Sinetsarazi digute emakumeon tokia ez dagoela borrokaren lehen lerroan, baina badakigu emakume langileen parte hartzea ezinbestekoa dela



Aicha eta Kristiña ITAIAko kideak. NAIAIZPURUA

“Emakume langileon parte hartzea ezinbestekoa da mundu bidegabe hau aldatzeko”

mundu bidegabe hau aldatzeko. Kapitalismoa irabazian oinarritutako esplotazio sistema da, eta emakumeen zapalkuntza ezin da hortik bereizi. Estatuak eta instituzioak ez dira neutroak, eta ezin dira emakume langileen askapenerako tresna izan. Sozialismoak, aldiz, berdintasunean eta gehiengoaren ongizatean oinarritutako gizarte eredua proposatzen du.

Debabarrenean egitarau zabala antolatu duzue Martxoaren 8aren bueltan. Zer balorazio egiten duzue?

KRISTIÑA: Deban eta Ermuan hitzaldiekin hasi ginen, ondoren Mendaron autodefentsa tailerra, Itziarren sormen tailerra eta dokumental emanaldia egin ditugu. Asteburu honetan ere ekimenak izango dira, eta martxoaren 8an Ermuan egingo dugu mobilizazioa. Balorazioa oso positiboa da: harrera beroa izan dute ekimenek eta emakume berriak gerturatzeko ari dira.

Noiz eta non izango da mobilizazioa?

AICHA: Ermuan, Martxoak 8 plazan, 12:30ean. Elkarretaratzea izango da.

Zein mezu helarazi nahi diezue herritarrei?

KRISTIÑA: Antolatzeko deia egin nahi dugu. Martxoaren 8a borrokarako eguna da, ez ospakizun hutsa. Kaleak hartu, zapaltzen gaituztenak seinatu eta alternatiba bat posible dela erakusten jarraitu behar dugu. Argi izan dezatela agintariek, esplotatzaileek eta faxistek: aurrean izango gaituzte.

DEBABARRENA

M8

ERMUA
Otsailak 21
HITZALDIA
16:00 Lohisno

DEBA
Otsailak 21
HITZALDIA
11:30 Gaztebera
Martxoak 7
KAFE TERTULIA
16:00 Ispiluen gela

MENDARO
Otsailak 28
AUTODEFENSA TAILERRA
16:00 Gaztebera

ITZIAR
Martxoak 1
SORMEN TAILERRA
• Proiektzioa: Ellos en la ciudad
18:00 Burugorri gainean

EIBAR
Martxoak 7
AUTODEFENSA TAILERRA
16:00 Ronin Club-en

ERMUA
Martxoak 8
MOBILIZAZIOA
12:30 Martxoak 8 plaza itaia

EMAKUME LANGILEOK ASKATZEKO BATU BORROKARA!

“Liburuak ez du zentzurik ez bada plazara ateratzen eta bertan hitz egiten diren gauzak eztabaidatzen”

NAIA TORREALDAI MANDALUNIZ • Bilgune Feministako kidea



‘Amaieratik hasi. Euskal feminismoa, aldaketarako paradigma’ liburua idatzi du Naia Torrealdai Mandalunizek, azkenaldian Euskal Herriko mugimendu feministan izandako eztabaidak eta talka nagusiak izendatuz eta azaleratuz. Atzo, Andretxean aurkeztu zuen liburua Ekhiñe Petriategirekin eta horren inguruko solasaldia egiteko aukera egon zen.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Liburuan eztabaidarako apologia egiten duzu eta Eibarren liburuaren inguruko solasaldia egiteko aukera izan duzu. Nolako garrantzia dute horrelako espazioek?

Oinarrizkoak dira. Liburu hau idazteko behar berezirik ez nuen, baina banuen premia azken urteotan mugimendu feministan eta herri mugimenduetan eman diren aldaketen eta ezinegonen inguruan jarduteko, ez garelako gai izan horiek eztabaidara eramateko. Eztabaidaren zilegitasuna zentroan jartzea nahiko nuke. Hortik dator eztabaidaren apologia hori, ez minetatik edo errespetua faltatzetik. Gatazkatsuak edo korapilatsuak egiten zaizkigun gauzak gure artean berba egiteak eta eztabaidak berak mugimendua, begirada eta ideologia bera aberasten dute. Niretzat liburuak ez du zentzurik ez bada plazara ateratzen eta bertan hitz egiten diren gauzak eztabaidatzen, baita nik neuk neure buruarekin ere, begirada aldatu ahal zaidalako.

Zergatik pentsatzen duzu ez direla eman eztabaida horiek mugimendu feministaren barruan?

Mugimendu feministak gorakada izan du azken hamarkadan, batez ere greba feministen inguruan, eta oso lotuak egon gara gutasun horri eustera. Azken finean, beste aldean dagoen guztia hain da handia, gutasun horri eta aliantzei eusteko beharra izan dugula. Gutasunak sor-

tzearen, gure artean minimo komuna eraiki eta horrekin kalera indartsu ateratzearen aldekoa izan naiz beti, baina egia da momentu batean ez dugula jakin ezberdintzen zein den eztabaida zilegia eta zeintzuk diren zatikatzen gaituzten eztabaidak. Horri heldu behar diogu lehenik eta behin, eta biktimismoetatik haratago gure posizioak ikusi eta gure artean hitz egin: feminismoa nola aldatu den, zein feminismo berri dagoen, zerk balio digun, zerk ez, zertara goazen... Gure barruan feminismo asko edo anitzak ahal dira izan, eta horrekin guztiarekin minimo komun berriak topatzearen ideiak. Bidean zentzu hori galdu dugu, eta erpinetan edo beldurrean geratu gara gotortuta. Apurketak izateko beldurra eta eztabaida eza egon da, eta azkenean gauza batzuk ez eztabaidatzeak apurketak ekarri ditu.

Zeintzuk dira gaur egunean bizirik dauden eztabaida eta korapilo nagusiak?

Nik tabuak esaten diet, ez ditugulako jorratu edo oso leku txikietatik jorratu ditugulako. Momentu honetan, transfeminismoaren eztabaida izan daiteke gai bat. Azken urteotan transfobiaren gorakada oso bizia ikusi da, oso bortitza eta antolatua. Mugimendu feministan transfeminismoak gorputzen materialtasunari egiten dion ekarpena eta hori praktika politikoan txertatzea



Naia Torrealdai apirilean aurkeztu zuen liburua Bilboko Iratzar gunean MARISOL RAMIREZ | FOKU

ezinbestekotzat jotzen dugu, baina oso teoria potentea da eta genealogia oso luze batetik datozen feministek ere behar dugu edo dute horrelako espazio bat, ekarpenak nondik datozen ikusteko, nola ulertzen den... Horretaz guztiaz eztabaidatzea zilegia da, kategoria eta subjektu politiko horretaz historikoki eztabaidatu izan dugulako. Gertatu izan zaigu, baita ere, transfobiak horrelako espazio handia sortu duela edo espazio horren bozgorailuarekin hauspotutakoa izan dela, asko entzun zaielako, mikroa jarri baitzaie batzuei morboa ematen dielako zatiketaren izenean horrelako zerbait eraikitzea. Horrek eragin duena da zilegia den eztabaida hori alde batera uztea eta kalera marra gorriekin irtetea. Euskal Herriko Mugimendu Feminista ez da transfobia, trans pertsonak subjektuak dira gure mugimenduan, baina hori ez da transfeminismoak egiten duen ekarpen bakarra, ez da bakarrik esatea trans pertsonak existitzen direla, baizik eta bestelako kosmobisio eta teoria oso bat dagoela.

Eta zer gehiago?

Indarkeria matxistaren alorrean, denbora nahikoa daragu zaintza lanen eta ekonomia biolentoaren inguruan teorizatzen. Greba feminista egin genuen eta hor eztabaida oso potenteak eman ziren: gizonak bai? ez?

non?... Baina denari ezin diogu heldu, garenak garelako, eta indarkeria matxistaren inguruko hausnarketak joko kanpo laga ditugu. Hor ez dut korapiloa ikusten bere horretan, baina indarkeria matxistari heldu behar diogu, ulertuz ardurak non dauden. Izan ere, bere sasoi ardurak banatzeko beharra ikusten genuen, baina gaur egun ikusten dugu protokoloak nola lantzen diren, indarkeria matxista jasaten duten emakumeak nork artatzen dituen, zelan, nondik... Eta ikusten dugu ardura eremu mistoetan militatzen duten feministen eskuetan gelditzen dela, horrek sortzen duen ezinegon, pisu eta berme gutxiarekin, emakume horiek ezin dutelako hori guztia artatu. Horregatik ikusten dugu komunitatea feministatzeko beharra, erasoak artatzeko eta hori guztia modu feministago batean egiteko. Horrekin lotzen da sareetan dagoen biolentzia. Ez bakarrik sareetan kaleetan dagoen biolentzia erreproduzitzen delako, baizik eta sareetan biolentzia espezifiko dagoelako, biolentzia antifeminista. Zentzu horretan, tresna berriak sortu dira, adibidez 'Denuncias Euskal Herria', horrek ematen dituen aukera eta oztupoekin. Horretaz ere hitz egin behar dugu, orokorrean mugimendu feministako taldeak ez gaudelako sareetan, ez dugu aktibismo hori egiten.

MIREN CID • Matraka Gazte Feministen taldeko kidea

“Ordenaren kontra, antolakuntza feminista da gure erantzuna”

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, antolakuntza feminista aldarrikatuko du Matraka Gazte Feminista taldeak. Aurtengoan, hitzordu bikoitza dute: ohiko M8ko egitarauarekin batera, zapatuan gaueko manifestazioa antolatu dute, “Ordenaren kontra, antolakuntza feminista” lelopean.

Testua IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA

Martxoak 8a ate joka da, eta testuinguru global eta lokalean eskuin muturraren gorakadak, prekaritateak eta diskurtso erreakzionarioen normalizazioak markatzen dute aurtengo M8a. Horren aurrean, gazte feministek antolakuntza kolektiboa indartzea dute erronka nagusietako bat. Miren Cid, Matraka Gazte Feministen taldeko kidea azaldu du lubaki feminista ez dela babeslekua soilik, baizik eta eraldaketa sozialerako tresna ere dela.

Zein testuinguru dugu aurrean Martxoak 8 honetara begira?

Ikusten ari gara eskuin muturra indartzen ari dela mundu mailan: AEBetan, Latinoamerikan zein Europan. Hori ez da alderdi politikoetan bakarrik islatzen; eguneroko diskurtsoetan ere gero eta ideia erreakzionario gehiago normalizatzen ari dira. Horren adibide dira migrazioa kriminalizatzea, mugak ixtea, nazio-identitate “garbi” baten defentsa edo genero-rol tradizionalen berrezarpena.

Diskurtso horien zabalpenaren ondorioz, gero eta gorrargoak dira migrazio-politika arrazistak: bizitza batzuk babestearen aitzakian, beste batzuk kontrolatu, baztertu edo kanporatzen dituzten politikak. Testuinguru horretan, ugaritzen ari dira diskurtso faxista eta antifeministak, feminismoa gehiegizkotzat jotzen dutenak, trans eskubideak mehatxu gisa aurkezten dituztenak edo arrazakeria “sen on” bihurtu nahi dutenak.

Zein zapalkuntza identifikatzen dituzue, eta nola eragiten die horrek gazte feministei?

Asko dira jasaten ditugun zapalkuntzak. Esaterako, prekaritatea nabarmen hazi da azken urteotan, eta gazteok prekarizatutako subjektu nagusietako bat gara: lan-baldintza prekarioak, bikote nuklear eta normatibotik kanpoko bizi-proiektuak irudikatzeko zailtasunak, etxebizitza eskuratzeko ezintasuna, eta horri guztiari lotutako osasun mentalaren krisia dira prekatietatearen oinarrietako batzuk.

Horrez gain, gure bizitzan hainbat biolentzia mota gurutzaturik daude. Argaltasunean eta edertasun hegemonikoan sartzeko mezuz bonbardatzen gaituzte: nola jan edo ez jan, nola jantzi, nola egin kirola... “betebehar” horiek jarraitu behar dituzu bai ala bai, eta bestela ez zara balizko pertsona bat.

Bestalde, erasoak hain normalizatuta daude, ia ohar-kabea pasatzen direla. Albotik igarotzean “nahigabe” ipurdian jotzea, gerritik heltzea, tabernako barran gizon batek zuk ezer ez esan gabe belarrira hitz egitea, mutil lagunak txortan egiteko insinuatzea norberak nekeagatik baietz esan arte... dira adibideetako batzuk.

Zein dira gaur egun gazte feministek dituzten erronka nagusiak?

Testuinguru horretan, feministok erronka handiak ditugu aurrean. Lubaki feminista defendatzen jarraitu behar dugu, seinalamendu hotzen, lege errepresiboen, despolitizazio-saiakeren eta inkisizio berrituen



Matraka Gazte Feministen taldeko kidea da Miren Cid. IRATI ALVAREZ

“Herriko beste talde feminista batekin batzeak borrokan jarraitzeko gogoia eta indarra ematen digu”

aurrean babesleku izan dadin. Krisi eta biolentziak nagusi diren garaiotan, lubakia babeslekua da, arauari erresistentzia eginez bizitzeko toki bat.

Baina ez dugu arautik kanpo hobeto bizi nahi soilik: arauarekin amaitu nahi dugu. Sistema osoa eraldatu nahi dugu. Horregatik, lubakia defendatzeaz gain, harago joan behar dugu: lubakitik kanpoko erasiteko eta eraldatzeko borrokan jarraitu behar dugu. Lubakia lantzea ez baita azken helburua, datozen borroketarako lur izango dugunaren oinarriak sendotzea baizik.

Aurtengoan, “Ordenaren kontra, antolakuntza feminista” lelopean, gaueko manifestazioa deitu duzue martxoaren 7an. Zergatik data hori?

Aurten Martxoaren 8a domeka denez, zapatua ere baliatu nahi genuen. Beste formatu batean gaueko manifestazioa antolatzea aproposa iruditu zitzaigun, beste formatu batekin.

Ez da ohiko manifestazioa izango. Musikarekin egingo dugu, aldarrikatzen goazen bitartean. Beti diogu

feminismoak gozamenerako momentuak ere behar dituela, eta hori praktikara eramango dugu: kaleak hartu, aldarrikatu eta gozatu egingo dugu.

Maila lokalean, Marasmia talde feministarekin elkarlanean ariko zarete. Nola baloratzen duzue talde berriaren sorrera?

Oso albiste pozgarria da. Eibarren jende gehiago antolatzea beharrezkoa da. Elkarrekin asko ikasi dezakegula uste dugu, eta herriko beste talde feminista batekin batzeak borrokan jarraitzeko gogoia eta indarra ematen digu.





LUKENE PIÑEIRO ALBERDI • Filosofoa

Divide et impera

Hasiera batean bateratua den edozein borroka arrakalatzera kondenatuta dago. A priori helburu bakarra zuen haserre antolatuen baitan iritzi ezberdinak sortzen dira. Eta feminismoa ez dago kondena horretatik salbu. Mugimendu honen barne-kohesioa gehien zapuzten duen auzietako bat prostituzioarena dela esatera ausartuko nintzateke. Izan ere, perspektiba feminista ezberdinek talka egiten duten bidegurutzearen aurrean gaude: batetik, prostituzioa sexu-askatasunari lotutako lantzat duen ikuspegia dago; bestetik, emakumeen gorputzaren salerosketan oinarritutako indarkeriazkotzat jotzen duena.

Premisa hau abiapuntu, muturreko ikuspuntuen arteko talkak eztabaidaz josten du feminismoa. Kritikak aberasgarriak izan daitezke, baina edozein diskurtsok zintzotasuna galtzen du bestearen ahotan esan ez direnak jartzen direnean. Abolizionismoak adiera ezberdinak izan ditzakeen arren, feminismoaren barruan, mugimenduaren iparrarekin bat egin behar du ezinbestean. Hori horrela, abolizionismoaren izena zikintzeak feminismoaren lerroetan borrokatzen duten ahotsen pentsamendua itxuragabetzea dakar. Gaizkiulertuak ekiditeko, zera azpimarratu behar da: sistema patriarkalaren biktima diren emakumeen estigmatizazioa eta baztertzea ezin dela, inolaz ere, feministatzat jotzen den diskurto baten parte izan. Are gehiago, hala defendatuko balitz, iritzi horrek ez luke mugimenduaren kapa morea janzteko zilegitasunik izan beharko.

Gakoari helduta, sistemaren muga eta zapalkuntza makilatuen baitan hartutako erabakiak askeak ote diren galdetu beharko genioke geure buruari. Feminismoaren barne-talkak emankorrak izan daitezke, baina elkarri harriak botatzen gabiltzan bitartean, indarrak xahutzen ari gara. Horra hor divide et impera. "Sexu-askatasuna" bezalako kontzeptuen inguruko borroketan murgilduta, ezin dugu sistemaren argazki orokorra ahaztu. Indarkeria asko zuritzen dira "askatasunaren" izenean, hautu horien atzean dauden baldintzapenak ahaztaraziz. Fikziozko askatasun horretan sinesteak sistema patriarkala egonkortu eta betikotu besterik ez du egiten. Agian, gure arteko eztabaida antzuetan galtzen garen bitartean, xake-jokoaren pieza huts bihurtu gara, joko-zelaia sistemak berak ezarri duela ahaztuz.

"Feminismoaren barne-talkak emankorrak izan daitezke, baina elkarri harriak botatzen gabiltzan bitartean, indarrak xahutzen ari gara"



NAIA KORTABERRIA • Militante feminista

Onak vs txarrak eta “Eibar Opina”

Errealitatea sinplifikatzen duten narratibak gero eta ohikoagoak dira. Horietan, etsai argi bat ageri da, erraz identifika dezakegun mehatxu bat eta irtenbide erraz bat. Gaur egun bizi dugun bezalako garai ziurgabeen, sinplifikazio hauek kontrol sentsazioa sor dezakete, mundua “on” eta “txar” artean banatzen dutelako eta ondorez honi berehalako azalpena ematen diotelako.

Eta bai, ondoreza existitzen da; prekarietatea, etxebizitzarako eskubidea ez izatea, indarkeria matxista gure azalean sufritzeak... Horrek denak ondoreza dakar. Baina ez gaitzateela engainatu, frustrazio hau beste herrialdeetatik datorrenaren kontrako gorroto bihurtzeak ez du inoren egoera hobetzen. Pertsona zaurgarriak seinalatzeak eta kanporatu nahi izateak ez ditu gehiengoaren baldintzak hobetuko. Pertsona zaurgarrien bizitzak babestu eta sostengatzeak, aldiz, bai.

Honekin batera, gero eta gehiago zabaltzen ari den ideia batek kezkatzen nau: feminismoa edota LGTBIAQ+ mugimendua ondo bizi direnen kezka dela, arlo ekonomikoa ziurtatuta dutenen borroka. Indarkeria matxistari aurre egitea bigarren mailako borroka izango balitz bezala, luxu ideologikoa.

Horren adibide argia ikusi dut aste honetan “Eibar Opinan”: argazki bat, bandera LGTBIAQ+-a margotuta duen banku bat eta ondoan konpondu gabeko errepide bat. “Lo que se gasta en eso –bankua seinalatuz-, no se invierte en esto –errepidea-. Berrirori ere tranpa bera. Beste etsai bat, batzuk ondorezaren errudun bezala identifikatu dutena.

Baina guk argi daukagu borroka desberdinak ez daudela lehian, elkar gurutzatzen dutela. Izan ere, Eibar Opinako adibidearekin jarraituz, herriko errepideak egoera txarrean egotea utzikeria instituzional bezala irakur daiteke. Baina utzikeria horrek gorputz jakin batzuei eragingo die gehien, hala nola, gaizki komunikatutako auzoetan daudenei, garraio publikoan mugitzen direnei (sarritan zutik edo gerrikorik gabe), edota herriko errepideetatik mugitu behar diren langileei. Eta, bai, sorpresa, honek zuzenean eragingo die pertsona arrazializatu eta migratuei, emakumeei* edota kolektiboko pertsonaei. Prekariedade arrisku handiagoa dutelako eta dugulako.

Amaitzeko, Bell Hook-en esaldi bat ekarriko dut “Maitatzea erabakitzea beldurraren aurka egitea da”. Beharrezko esaldia beldurra, konfiantza eza eta gorrotoa nagusitzen ari diren honetan. Feminismoa boterea birpentsatzeko tresna delako eta gorputzak, bizitzak eta gure herria beste era batean antola daitezkeela erakutsi digulako jarraituko dugu borroka honetan. Feminismotik beste mundu bat eraikiko dugulako.

“Pertsona zaurgarriak seinalatzeak eta kanporatu nahi izateak ez ditu gehiengoaren baldintzak hobetuko. Pertsona zaurgarrien bizitzak babestu eta sostengatzeak, aldiz, bai”



MADDI ALBERDI SAN MARTIN

Sareek badakite zer egiten duten

Inork ez dio armiarmari arkitektura irakatsi. Haria sortzen du, ia ikusezina, eta badaki non heldu, nola gurutzatu, nola bihurtu egitura. Hariek sarea egiten dute eta sareak trabatu egiten du, azkar dabilena moteldu, ziur doanari zalantza eragin, kideak babestu eta etsaia ehizatu; zaratarik egin gabe, tankeen beharrik gabe.

Euliak, eltxoak, sitsak, labezomorroak, kakalardoak eta kilkerrak jaten omen dituzte armiarmek. Egiari zor, ez naiz oso armiarma zalea eta ez dut gaurkoan zortzi hankako animaliez idatzi nahi; baina, kakalardo eta labezomorro ugari arro-arro dabiltza azken aldian, eta horiek gutxiago gustatzen zaizkit.

Martxoaren 8a dugun honetan, metafora ulertuko duzuelakoan nago.

Hariak izan daitezke Urkizuko parkeko elkarriketak, lantokiko begirada konplizeak, bileretan altxatzen diren eskuak, afaritako tupper konpartituak. Hariak izan daitezke saretzen gaituzten keinu txikiak eta ez hain txikiak. Izan ere, etxeko sukaldean hasten den haria auzoko plazara iristen da, lantokiko atsedenaldi laburra batzar bihurtzen da eta tupper konpartituek bizitza bizigarriago egiten dute.

Badirudi ez dela epikoa. Baina korrika, azkar, ozen, beldurra eta biolentzia zabaltzen ari diren horien aurrean, epikoa da egunerokotasuna bizigarri egitea, komunitatea sendotzea, aliantzak egitea, antolatzea. Bide horretan, aukera ugari ditugu herrian, eta, orain, bat gehiago: Marasmia Talde Feminista.

Faxismoaren eta eskuin erreakzionarioaren aurrean, martxoaren 8a indar erakustaldia izango da. Eibarko kaleak hartuko ditugu, hariak sortu, sareak eraiki eta egitura sendotu, kakalardo eta labezomorroek ez dutelako lekurik gurean.

Marasmia amarauna egiten hasia da.

“Beldurra eta biolentzia zabaltzen ari diren horien aurrean, epikoa da egunerokotasuna bizigarri egitea, komunitatea sendotzea, aliantzak egitea, antolatzea”



ENERITZ IRURETAGOiena • ITAIAko kidea

Martxoaren 8a, borrokarako eguna

Otsailean bertan, 2026ko lehen erailketa matxista izan dugu Euskal Herrian. Emakume bat erail du bere senarrak Sarrigurenen. Egunero irakurtzen ditugu titular handiak: Julio Iglesiasi, esaterako, bere diruak eta ospeak baimendu diote urte luzez bere etxeko langileak esplotatu, sexualki erasotu eta guztiz kontrolatzea. Bestalde, Epsteinen kasuan, ehunka ume eta emakume sistematikoki bahitu eta bortxatu dituzte.

Titularrak bakarrik nahikoa lirakeke iritzi artikuluko oso bat betetzeko. Izan ere, ez dugu urrutira jo beharrik: abenduan, Eibarren, emakume batek sexu-erasoa salatu zuela jakin genuen. Gure eskualdean bertan, gure kaleetan, eta jakin badakigu beste hainbat kasu isilean geratzen direla.

Azken astean argitaratu dute Espainiako Estatuko gazteen erdiak feminismoa manipulazio politikorako armatzat hartzen dutela. Bien bitartean, emakumeok egunero jasan behar dugu matxismoa gure azalean, eta erabat babesgabe sentitzen gara. Faxismoaren eta matxismoaren zabalpenak are gehiago sakondu du gure zapaldu egoera: erailketak eta erasoak ez ezik, lan baldintzen prekarizazioa, zaintza zerbitzuen pribatizazioa eta murrizketak ere gure eguneroko ogia dira. Horren adibiderik gertukoena, Soraluze eta Elgoibarko erresidentzietako langileek abiatu duten borroka edo sektore feminizatuetaiko langileei inposatu izan dizkieten gutxieneko zerbitzu lotsagarriak (%80tik gorakoak).

Martxoaren 8a ate joka dugun honetan, ezin dugu egun hau ekitaldi protokolariora huts bihurtzen utzi, ezta emakume langileon nazioarteko eguna instituzioek eta alderdiek edukirik gabeko ospakizun bilakatzen ere. Ez da kontsentsu faltsurako eguna; gure pobrezia eta prekarizazioaren arduradunak seinatzeko eguna da, eta gure gorputzak objektu gisa tratatzen dituztenak eta gure eskubideak hustu nahi dituztenak interplatatzeko eguna.

Horregatik atera behar gara kalera. Borrokarako eguna delako, eta borroka honek merezi duelako. Emakume langileok lehen lerroan egotea premiazkoa da: indarkeria matxistaren aurka, prekarizazioaren aurka eta emakumeon eskubideen alde kaleak hartuko ditugu!

Zuri, hau irakurtzen ari zaren horri, borrokara batzeko eta antolatzeko deia luzatzen dizugu!

“Emakume langileok lehen lerroan egotea premiazkoa da: indarkeria matxistaren aurka, prekarizazioaren aurka eta emakumeon eskubideen alde kaleak hartuko ditugu!”

“Gauza bat egitea posible dela ikusten baduzu, egingarriagoa bihurtzen da”

IDOIA URUÑUELA, DOHA BENSLAIMAN ETA ALAITZ IBARROLA • Kirolariak



Orri hauetan astero jasotzen ditugu euren emaitzak, lorpenak eta baita porrotak ere, baina zenbaki eta letra horien atzean esfortzuak, nahiak, pozak eta tristurak gordetzen dira. Gertutik ezagutzen dute hori Idoia Uruñuelak, Doha Benslaimanek eta Alaitz Ibarrolak, eta euren ahotik entzuteko aukera eman digute.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **IRUNE JAIO ETA OIHANE ZABALA**

Doha Benslaiman Eibar Rugby Taldeko jokalaria da, Idoia Uruñuela Eibar Triatloi Taldeko kidea eta Alaitz Ibarrolak Urbat Urkotronik waterpolo taldean jokatzeko du. Bakoitzak kirol bat egin arren, gauza asko amankomunean dituztela erakutsi digute.

Zuentzat kirola zer da? Nolako garrantzia du zuen bizitzan?

ALAITZ: Niretzat bizitzeko modu bat da. Lagunak ere kirolean egin ditut, egunero egiten dut kirola eta nire errutinan dago txertatuta.

IDOIA: Bizitzeko era bat da niretzat ere. Triatloian, normalean, egunero edo ia egunero entrenatzen dugu, beraz uneoro dugu presente. Gainera, jendea ezagutzeko beste modu bat ere izan daiteke.

DOHA: Kirolak indar handia du nire egunerokoan. Ez bakarrik aldaketa fisikoa ekartzen duelako, baizik eta nortasunean ere eragiten duelako ere: diziplinan, zure izateko moduan... Errugbian ordu asko ematen ditugu entrenatzen eta taldekideekin etxekoekin baino denbora gehiago pasatzen duzu ia-ia.

Nola hasi zinenet kirola egiten eta nola garatu duzue ibilbidea?

ALAITZ: Kasualitatez hasi nintzen 13 urterekin. Lagun

batek waterpoloan apuntatzeko esan zidan eta hori egin nuen. Harrezkero, Urbateko nesken taldeak 10 urte egin ditu. Izena eman genuenean entrenatzea besterik ez genuen buruan, talderik ez zegoelako, eta guk sortu genuen. Ez zen erraza izan, baina atzera begiratzean pozez begiratzen diot bideari, egin dugun guztiagatik eta iritsi garen tokiarengatik. Zoriontsu izan gara 10 urte hauetan.

IDOIA: Ni eskubaloian hasi nintzen, baina hori laga eta 2019an lasterketa batera apuntatu nintzenez, korrika egiten hasi nintzen. Gero, Olentzerok errepideko bizikleta ekarri zidan eta, pixkanaka, triatloiarenganako gosea pizten hasi zitzaidan. Orduan, triatloi supersprint herrikoi bat egin nuen eta Eibar Triatloi Taldera batzea erabaki nuen. Orain, oso gustora nago taldean, baina egia da Eibar Triatloi Taldean hiru neska bakarrik gaudela eta askotan zailtasunak izaten ditugula talde bezala lehiaketetara joateko. Esate baterako, apirilaren amaieran Plentzian triatloia egingo da eta talde bakoitzean lau neska egon behar dira gutxienez parte hartu ahal izateko; beraz, ezingo dugu taldea eraman.

DOHA: Aldaketa fisikoa izan nahi nuelako hasi nintzen errugbian eta hasi bezain pronto konturatu nintzen kirola ez dela hori bakarrik, askoz ere gauza gehiago ematen dituela. 2016an hasi nintzen eta luze jarraitzea espero



Kirolak gauza asko ematen dio hirukoteari, baina batez ere gozamenerako da baliagarria eurentzat. EKHI BELAR

dut. Hasi nintzenean Euskal Ligan geunden, nahiko kaxkar, baina oso garapen ona izan dugu, oso emaitza onak lortu ditugu, tartean Ohorezko Mailara igoz. Iaz okerrago ibili ginen eta maila galdu genuen, baina berriz ere helburuak finkatu ditugu eta talde-lan ona eginda berriz igotzea espero dugu.

Kasu askotan, bidea zabaldu egin duzue. Herriko nes-

ka gaztetxoek erreferente izan zaitezketela pentsa-
zen duzue?

ALAITZ: Gure belaunaldiak, 13 urterekin, senior taldea sortu zuen. Ez genuen erreferenterik, Euskal Herri mailan waterpolo kirol minoritarioa izanik... Itsu-itsuan genbiltzan pixka bat. Orduan, ez dakit erreferenteak garen, hitz potoloa delako, baina polita da etortzen di-

PSE-EE
PSOE
/ ♥

Martxoak 8:
Emakumearen nazioarteko eguna
Beraiek definitzen
gaituzte: konpromisoa,
talde-lana eta kalitatea.

JAZ jazzsurface.com



“Ez dakit erreferenteak garen, baina polita da gazteek ikustea bide bat jarraitu dezaketela”

“Buruak huts egin dezake, baina alboan benetako taldekideak badituzu, aurrera egiten duzu”

ren neska gaztetxoek ikustea badagoela nagusien talde bat eta gure ibilbidea ezagutzea. Jarraitu dezaketen bide bat ikusten dute.

IDOIA: Ez dut nire burua inoren erreferente ikusten, baina neskatoek korrika edo bizikletan ikusten nauteanean pentsatzen dut oso neska gutxi ikusten dela hori egiten eta, agian, hori egitera bultzatu ahal diedala. Eibarren arazo larria dago korrika egitearekin eta emakumeekin. Ez da normala Eibartik Behobia-Donostia lasterketara 20 emakume joatea eta Asier Cuevas lasterketan horren erdiak ere ez izena ematea. Emakume askori lotsa ematen die korrika egiteak eta lotsa hori kendu edo gaia landu beharko genuke.

DOHA: Errugbian hasi nintzenean izan nituen erreferenteak, adibidez Amaiur Mayo, eta urteak pasa ahala zuk hartzen duzu rol hori. Gaur egun, taldeko betaranoenatariko bat naiz eta ez dakit inorentzat erreferentea naizen, baina bai isladatzen dut zerbaite. Adibidez, errugbian jokatzeko duen emakumea naizela, normalean gizonei lotuta egon den kirol batean, kontaktua eta gogortasuna beti harremantzen delako gizonekin. Bestalde, nire kasuan beste komunitate edo erlijio bat isladatzen dut. Askotan, buruan zapiarekin ikusten nauteanean (batez ere hirugarren denboran, partiduetan kaskoa janzen dudalako) jendea harritu egiten da modu positiboan, ez delako egunero ikusten den zer-

bait. Ni neu ere harritzen naiz beste bat ikusten dudanean. Ez dakit inork erreferente bezala ikusiko nauen horregatik, baina bai da aldaketa bat. Aldaketa txikiak dira, baina normaltasunez ikusten bada, aurrerapauso nabarmenak emango ditugu. Multirikiroletan umeak entrenatzen aritu naizenean edo gaztetxoaren taldeetakoek jokatzeko ikusi nauteanean, neskatoak gerturatu egin zaizkit, sorpresa hartu dutelako. Azkenean, gauza bat ikusten ez baduzu, zailagoa da hori egitea edo hori egiteko mugatuta sentitzen zara; baina posible dela ikusten baduzu, egingarriagoa bihurtzen da. Adibidez, ilobak nire pausoak jarraitu nahi ditu eta errugbilaria izan, bidaiatu, eta abar.

Taldeka edo bakarka ari zarete zuen kirolean. Zein alde on eta txar ikusten diozue horri?

ALAITZ: Taldekako kirola egin dut bakarrik eta lagunekin jokatzeko abantaila dela esango nuke. Banaka zabiltzanean ardura guztia zuk hartzen duzu eta taldean banatu egiten da ardura hori. Huts egiten duzunean besteengan pentsatzen duzu, baina lagundu egiten zaituzte.

IDOIA: Nik kontrakoa pentsatzen dut. Eskubaloian taldean ibili nintzen eta konpromiso bat nuen asteburuetan, entrenamenduak egun eta ordu zehatzetan egin behar ziren... Eibar Triatloi Taldekoak elkarrekin joaten gara lasterketara eta hasi aurretik talde-giro ona dugu, baina horraino. Entrenatzerako orduan, lanare-



Maila goreneko kirolariak dira Alaitz Ibarrola, Doha Benslaiman eta Idoia Uruñuela.

kin edo ikasketekin uztartzeko, errazagoa da banakako kirolean aritzea. Nahi edo ahal duzunean entrenatzen duzu eta zugan bakarrik du eragina. Lasterketetan ere, egun txar bat baduzu, laga egin dezakezu eta ez da ezer pasatzen. Gainera, nik aukeratzen dut zein lasterketa egin. Askatasun gehiago duzu.

DOHA: Nik alderantziz ikusten dut hori. Zure bizitza kirolera egokitzea lortzen baduzu, horrek demaseko balioa dauka. Gainera, kirola taldean egiteak gehiago ematen dizula uste dut. Momentu txarrenetan taldekideek lagundu egiten dizute, zuk ere laguntzen diezu, diziplina ikasten duzu, helburu amankomun batengatik lehiatzen zara, errespetuarekin eta konpromisoarekin lan egiten ikasten duzu... Horrek hezi egiten zaitu eta pertsona moduan hazten zara. Bestalde, taldekako kirolean, lur-jota edo etsita bazaude, amore emateko gogoia

izaten duzu, baina taldekide bat etortzen bazaizu eta gai zarela eta dena psikologikoa dela esaten badizu, behar duzun energia ematen dizu. Buruak huts egin dezake, baina alboan benetako taldekideak badituzu, errugbian gertatzen den bezala, aurrera egiten duzu. Izugarria da. **IDOIA:** Triatloi lasterketetan bakarka lehiatzen gara, baina bidean askotan egiten dugu topo taldekideekin eta gure artean asko animatzen gara. Ez da gauza bera, baina bada zerbait. Diziplina aldetik ere, nik neuk askotan ez dut entrenatzeko gogorik izaten, adibidez euria egiten duenean, baina atera egin behar zara eta horrek bultzatu egiten zaitu. Gure kasuan, geure buruarekin dugu konpromisoa.

ELKARRIZKETA OSOA ETA BIDEOA: WWW.ETAKITTO.EUS



**BERDINTASUNAREN
ALDE**

**MECANIZADOS
MATXARIA**

943 82 04 90
Azitaingo Industrialdea, 3 M - behea

Martxoak 8
Emakumeen* Nazioarteko Eguna

**FAXISMOAREN
KAPITALISMOAREN AURREAN**

LAB
SINDIKALISMO
FEMINISTA

sindikalismo feminista!

ETAKITTO

Testuak **MAIDER ARANBERRI**

Martxoaren 24an egingo du Urteko Batzarra ...eta kitto!-k

Aste Santuaren aurretik, martxoaren 24an, egingo du Urteko Batzar Nagusia ...eta kitto! Euskara Elkarteak bere egoitzan (Urkizu 11, solairuartea). Lehenengo deialdia 19:00etan izango da; bazkideen erditik gora ez bada bertaratzen, ordu erdi geroago egingo da Batzarra, hau da, 19:30ean. Bazkide guztiak daude parte hartzera gonbidatuta. Gai-zerrenda honako hau izango da: 2025eko gestio-balantzea; 2026rako egitasmoak, bazkide-kuotak eta aurrekontuak; galdera-erantzunak eta iradokizunak, eta zuzendaritza berriaren hautaketa eta funtzionamendua.



Karmele Mitxelena izango da Harixa Emoten saioko gonbidatua

“Zoriona, edo antzeko zerbait” liburua irakurri dute irakurle-taldeko kideek eta Karmele Mitxelena idazlearekin batera izango dute eleberriarri mamia ateratzeko aukera. Datorren martitzenean, martxoak 10, elkartuko dira 19:00etan Portalean.



Torrekuako parkean egingo dira gaur arratsaldean Barixakuak Jolasianeko jolasak

Martxoan ere euskarazko jolasak eskainiko ditu ...eta kitto!-k herriko auzoetan. Joan den astean Txaltxa Zelain egin ziren eta, gaur, martxoak 6, Torrekuako parkearen txanda izango da. 17:00etatik 18:00etara ordubete dibertigarria pasatzeko aukera izango dute hurbiltzen diren txikiek. Datorren astean, martxoak 13, Urkizun egingo dira jolasak.

Kalean da otsaileko Txikitto! hilabetekaria

Joan den astean banatu zuen herriko ikastetxeetan ...eta kitto! Euskara Elkarteak Txikitto! hilabetekaria. Otsailari dagokion aleak lau orrialde gehiago ditu, aurtengo aratosteei errepasoa egiten baitie: eskoletako desfileak, herrian egindako ekintzak... Baina, horrez gain, bada besterik ere. Ohiko txiste, denborapasa, horoskopoa, ipuin eta bitxikeriez gain, Iturburuko lau ikaslek Santa Ageda bezperan egindakoak azaldu dizkigute eta Arrateko Andra Mari ikastetxeko Cecilia amama eta Jone biloba elkarrizketa dibertigarrian elkartu ditugu. Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakasle eta ikasleekin elkarlanean argitaratzen du ...eta kitto!-k Txikitto! aldizkaria eta maila horretako ikasleen artean banatzen da hilero.





Saio honetan gure eskualdean presente dauden baina askotan bigarren planoan geratzen diren kirol eta jokoetan murgildu gara.

Hiru txirloan, petankan, Mölkky-an eta Palet-ean aritu gara, Eibarren, Ermuan eta Mallabian. Elkarriketak, azalpen teknikoak eta praktikan jartzeko saiakerak uztartu ditugu. Finean, Debabarrenean ere jaurtitzen delako.

ALBISTEAK

Zaporeak Debababarrena erronka solidariorako janari-bilketa martxoaren 9tik 12ra bitartean egingo da.



Ermuko Udalak azalpenak eskatu dizkio Jaurlaritzari, Zaldibarko zabor-tegiaren arriskuengatik.



Mart 6

M8. UMORE	FILIPA BALBINAREN UMOREZKO IKUSKIZUNA	19:00	LOBIANO (ERMUA)
BERTSO.	'ESNE BERRIKETAN' BERTSO-SAIO LITERARIOA	19:00	MUSIKA AUDITOR. (ELGOIBAR)
BERTSO.	TRIKI POTEOA PINTXO AFARIA		KULTUR ETXE/ KULTUR KAFE (ELGOIBAR)
M8.	"LA DESKARADA"	20:00	ANTZOKI (SORAL)
M8. ANTZ.	"OVARIOS VERDES FRITOS"	18:30	SAN AGUSTIN (MENDARO)
KORRIKA	"KULUNKAREN" DANTZA KALEAN KANTUZ ABESBATZA KALEJIRA	18:00 19:00 19:30	FORUEN PLAZA (DEBA)
EKIT.	GAZTE TOPAGUNEA AURKEZPENA (ERNAI)	18:30 20:00	ZUBIXA (MUTRIK) ARRANO (DEBA)
M8.	"EMAKUMEEN OSASUN ESKOLA"	19:00	KONTZEJUZARRA (MALLABIA)

Mart 7

M8	BERTSO-SAIO FEMINITA / KARROPOTEOA	18:30	ORBE PLAZA (ERMUA)
MENDIA.	IRTEERA. SAN LORENTZORA	09:00	KALEGOEN (ERMUA)
KIROL.	PALA TXAPELKETA MISTOA	10:00	ALDATS (DEBA)
M8	KAFE TERTULIA (ITAIA)	11:00	ISPILUEN GELA (DEBA)
KORRIKA.	ERRIGORAREN PRODUKTU DASTAKETA	19:00	DONIBANE ELKARTEA (ITZIAR)
MUSIKA	CALZADOS DEPORTIVOS + TXOLA TA	22:00	GAZTETXEA (ELGOIBAR)

Mart 8

M8 MOBIL.	MOBILIZAZIOA (ITAIA) MOBILIZAZ. + BAZKARIA (MUGIMEDU FEMINISTA)	12:30 13:00	M8 PLAZA ORBE PLAZA (ERMUA)
M8 MOBIL.	M8 ELKARRETARATZEA	13:00	KALEGOEN (ELGOIBAR)
M8 MOBIL.	M8 ELKARRETARATZEA MUSIKA (MARINA LLEDO)	13:30 18:30	UDALET. SAN AGUSTIN MENDARO
M8 MOBIL.	ELKARRET. (SARE FEMIST) ELKARRET. (UDALA)	11:00 12:00	FORUEN PLAZA (DEBA)
M8 MOBIL.	M8 ELKARRETARATZEA CLOWN IKUSKIZUNA	12:15 12:30	KONTZEJUZARRA (MALLABIA)
IPUIN	IPUIN KONTAKETA SAIOA	17:30	ISPILU GELA (DEBA)

Kakarik gabeko gizarteak ezkututzen duena jarriko dute agerian.

Kaka mokordo bat herriko plazan. Mendeak dira munduan kakarik ez dagoela; gizakiek ipurdia izan baduten arren ipurtzuloa falta baitzaie. Baina mokordoa agertu da Ipurtegieta, eta misterioa argitu beharko da. Erika Olaizolak eta Xanti Agirrezabalak sortu dute Kaka antzezlan, eta martxoaren 10ean egongo dira Eibarren, Coliseo antzokian. AEK-Korrikako II. Kultur Sorkuntza Beka irabazi zuten iaz Olaizolak eta Agirrezabalak, eta, beraz, Kaka izango da 24. Korrikaren ekitaldi kultural nagusia.

Martxoak 10
(asteartea)
19:00
Coliseo



Antzezlan sortzeko abiapuntua ez da izan hausnarketa bultzatzea. Horixe esan du Olaizolak: «Badirudi proiektu hauek guztiek seriotasunetik abiatu behar dutela. Begira: ba, ez. Batzuetan oso arinak dira abiapuntuak. Okurritu zitzaigun lehen ideia hauxe izan zen: kaka mokordoa herriko plazan». Jolasetik heldu zieten aktoreek proiektuari, baina badago irudi ustez simple horren atzean hausnarketarako tarte ere. Tabuak hizpidera ekarri nahi dituzte antzezlanean, ezkutuan dagoena azaleratu.

KAKA

ZOZKETA

Bi sarreren zozketan
parte hartzeko sartu
etakitto.eus webgunean

Kepa Errasti i
Erika Olaizola &
Xanti Agirrezabala



XLIX ANTZERKI JARDUNALDIAK



QUIMERA

La Fam Teatre

KALE ANTZERKIA / 60'

Martxoak 7
(zapatua)
12:30 Untzaga-Errebal
19:00 Errebal-Untzaga

Antzezleak: Santi Martínez, Víctor Segarra, Juanan Lucena, Sergi Heredia

Zuzendaria: Sergi Heredia

Zer gertatzen da gizakiek makinak menderatzea lortzen ez dutenean? QUIMERA esnatzen denean, hura kaletik doala otzantzea benetako odisea bihurtzen da. Benetako borroka bat gizakiaren eta makinaren artean, kontrola lortze aldera. Kimera greziar mitologiatik sortu zen. Tifonen eta Equidnaren alaba, dragoi itxurako piztia bat da, munduan zehar noraezean zebilena, eta herriak izutu eta aurka zeudenak irensten zituen.



A LA GLORIA CON GLORIA FUERTES

Teatro de Malta

KLOWNA / 60'

Martxoak 7
(zapatua)
17:00
Coliseo

Antzezleak: Cristina Almazán, Santi Martínez

Zuzendaria: Marta Torres

A la gloria con Gloria Fuertes Teatro de Maltak poeta madrildarrari buruz egindako trilogiaren hirugarren eta azken atala da. Clownak barrea bilatzen du etengabe, Gloria Fuertesek bezala. Ulertzen ez duen mundu bat bizi du, Gloria Fuertesek bezala. Edozein porroti egiten dio aurre, Gloria Fuertesek bezala. Norberaren tristura inoren alaitasun bihurtzeko gai da. Clowna Gloria Fuertes-aren poesia bezain eskuzabala da.



KAKA

Erika Olaizola & Xanti Agirrezabala

KOMEDIA / 75'

Martxoak 10
(martitzena)
19:00
Coliseo

Antzezleak: Ainhoa Aierbe, Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala, Mikel Laskurain

Zuzendaria: Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala, Espe López

Euskal kulturaren oholtzan, kaka-mokordo bat agertu da. Kaka azaleratu da eta egoeraren analisisa egin behar da. Nork egin du? Noiztik dago hor? Zer irudikatzen du? Eta orain, zer egin kaka honekin? Noren ardura da? Nori tokatzen zaio marroi hau argitzea? Garbitzea? Kakak kaka dakar, eta pentsatzen jarrita... Mundua nolakoa litzateke, bakoitza bere kakaren jabe egingo balitz? Norbanako, kolektibo edo herri gisa batzen gaituen, baina ezkututzen dugun horren guztiaren azaleratze-festa da KAKA.



Zabalik da arte eszenikoen tailerrera izen-ematea

S.H. Antzerki eta musikaren munduan haurrak murgiltzeko ikastaroa antolatu du Eibarko Udalak. Tailerraren bidez, haurrek euren gaitasunak eta doiak garatzeko aukera izango dute, aldi berean ondo pasatuz. Tailerra euskaraz izango da eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago. Aurrematrikula martxoaren 10era bitartean bete daiteke, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioa beteta, eta han bertan kontsultatu daiteke informazio guztia.



Trust Eibarres enpresari buruzko erakusketa Museoan

S.H. Aurten ehun urte beteko dituen Eibarko enpresa enblematiko honek kartutxoak fabrikatu izan ditu historikoki, nahiz eta hasieran eskopetak ere egin zituen. Erakusketak lantegiaren sorrera eta bilakaera jasoko ditu. Maiatzaren 17ra arte bisitatu ahalko da, 16:00etatik 20:00etara eguaztenetik zapatura bitartean eta 10:00etatik 13:00etara domeketan.



Spielberg-en “Purpura kolorea” Coliseo Klazineman

S.H. Eibarko Kulturak antolatutako Coliseo Klazinema zikloaren bigarren emanaldia domekan, martxoaren 8an izango da. Emakumearen Nazioarteko Egunean proiektatuko duten filma *Purpura kolorea*, Steven Spielbergek 1985ean zuzendutako lana da. XX. mende hasierako Estatu Batuetan girotutako istorio hunkigarria kontatzen du pelikulak: emakume afroamerikar baten bizitza ardatz hartuta, hainbat gai lantzen ditu, hala nola erresilientzia, sororitatea, identitatea, biolentzia eta bazterkeria. 1980ko hamarkadako film onenetarikoa da, eta sari ugari jaso ditu. Bertan lan egiten duten aktoreak ere goi-mailakoak dira: Danny Glover, Whoopi Goldberg, Adolph Caesar, Akosua Busia, Laurence Fishburne, Oprah Winfrey, Rae Dawn Chong eta Margaret Avery. Sarrerak 5,5 euro balio du.



Gerra-frontearen ibilbide historikoa martxoaren 29an

S.H. Gerra Zibileko gerra-frontearen ibilbide historikoaren bisita gidatua egingo da martxoaren 29an (domeka), 11:00etatik 14:00etara. Bisita gaztelaniaz izango da, doan, eta izena emateko epea martxoaren 18tik 25era bitartekoa izango da (Udalaren webgunean dagoen formularioa bete beharko da).



Kontzertu korala hartuko du Coliseo antzokiak domekan

S.H. Domekan (martxoak 8) bi abesbatzaren kontzertua hartuko du Coliseo antzokiak, 12:30ean. Jose Miguel Laskurainek zuzentzen duen EKOS, Eibarko Udal Musika Eskolako helduen korua eta Gasteizko Oskarbi emakumeen abesbatza arituko dira kantuan, eta sarrera dohainik da (Kutxabank-en bidez edo Coliseoko leihatilan eskuratu daiteke). Eibarko Musika Eskolatik azaldu digutenez, kontzertua koruen elkartrukea da. Horrela, asteburu honetan Eibarren eskainiko duten kontzertua, Gasteizen emango dute hurrengo asteburuan.



Krifis eta Green Sun Cult taldeen kontzertua Zai-zoin

S.H. Bihar, martxoak 7, bi talderen kontzertua hartuko du Zai-zoi tabernak, 19:00etatik aurrera: Krifis eta Green Sun Cult taldeak arituko dira, bata bestearen atzetik. Krifis 2024an Donostian sortutako metal instrumental taldea da. Haien musikan riff indartsuak, erritmo aldaketa ugari eta dinamika kontraste handiak aurki daitezke. Lehen lana, *Anabasis*, 2025eko irailean argitaratu zuten. Eta Green Sun, berriz, Stoner/Doom talde urduliztarra da, eta euren lehen lana *Euskaldoom* da.



Mattin Iñiguezen proiektzioa eta solasaldia martitzenean

S.H. Eibarko Klub Deportiboko Mendi Taldearen eskutik, aurrera doa Mendi Jardunaldien egitaraua eta, horren baitan, martitzenean (martxoak 10), *Red-Bull X-Alps, Mendiko lasterketa eta parapentea* izenburuko proiektzioa eta solasaldia eskainiko ditu Mattin Iñiguezek, 19:00etan, Portalean.

Mendiko lasterketak eta parapentea uztartzen dituen munduko abentura lasterketa gogorrena da Red-Bull X-Alps, eta horretan parte hartu duen Mattin Iñiguezek bere esperientzia kontatuko die bertaratzen direnei. Ikus-entzunezkoa proiektatu eta gero, solasaldia egingo da. Saioa euskaraz izango da eta sarrera doan, nahi duten guztientzat.

Bestetik, Mendi Jardunaldien egitaraua ixteko, martxoaren 29an (domeka) txoriak ezagutu eta ikusteko irteera egingo da, horretan aditua den Asier Sarasua Aranberri eibartarraren gidaritzapean. Jarduera hau ere euskaraz eta doan izango da, eta izen-ematea Klub Deportiboaren webgunean egin daiteke (www.deporeibar.com/mendia). Informazio gehiagorako 943 201904 telefono zenbakira deitu (martitzen eta eguenetan, 19:00etatik 20:00etara).

Isabel Huertosen erakusketa

S.H. Gaur (martxoak 6, barriakua) zabalduko dute Isabel Huertosen “Sai art. Renacer bilduma” arte garaikideko erakusketa Untzaga gizarte zentroko erakusketa aretoan. Martxoaren 15era arte egongo da ikusgai, astebarruan 19:00etatik 21:00etara eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



ERRAZAGOA

			4	8				2
	8					9		
		4			9	6	5	
2				6	4			
		5				1		
			9	7				3
	1	9	5			3		
		8					7	
4				1	8			

SUDOKUA

6	2	5	8	1	7	3	9	4
1	7	4	9	6	3	8	5	2
9	8	3	2	4	5	6	7	1
3	9	2	5	7	6	4	1	8
7	4	1	3	2	8	5	6	9
5	6	8	4	9	1	7	3	2
8	5	9	6	3	2	4	8	7
4	1	6	7	5	9	2	8	3
2	3	7	1	8	4	9	5	6

5	2	6	9	1	8	3	4	7
9	3	8	4	7	5	6	1	2
1	4	2	6	3	9	5	8	7
3	7	2	5	9	6	1	8	4
6	1	9	7	4	2	3	5	8
8	5	4	1	3	9	7	2	6
4	6	3	2	7	8	1	5	9
7	8	1	5	9	4	2	6	3
2	9	8	3	6	1	4	7	5

ZAILAGOA

		7		4		3		
					8	1	9	7
	9			2				
			2				5	8
5								9
4	8				5			
				9			4	
2	1	9	5					
		3		1		9		

LETRA-ZOPA

A	U	E	R	O	L	A	Z	A
B	E	L	A	R	B	U	R	L
D	I	X	U	L	E	E	I	O
T	H	S	O	T	L	A	R	D
A	N	O	T	I	A	H	O	N
K	I	Z	A	U	R	R	E	O
O	N	K	R	T	R	O	A	G
I	S	A	R	E	I	I	P	D
E	G	R	A	L	E	H	O	I

Azalore
Lehoi
Aitona
Gondola
Belar

Eskailera
Bisturi
Dorrea
Otarra
Takoi



Martxoak 6 - Martxoak 12

BARIXAKUA 6

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Bi eta zortzi urte bitarteko haurrentzat jolasak, doan...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Torrekua.

KOMITEA

18:00 Greba Orokorren egunari forma emateko komitea, Ernai gazte antolakundearen eskutik. Arrate Kultur Elkartea (1. solairua).

HITZALDIA

18:00 "Aliantza estrategikoak genero-indarkeria bikario eta instituzionalak desagerrarazteko", Maria Villalobos Gilen eskutik. Gaztelaniaz. Martxoak 8ko lantaldearen eskutik. Jarduera irekia eta doakoa. Andretxea.



AURKEZPENA

19:30 Herritu ekimenaren eta Eibarren sustengatzen duten hamaikakoaren aurkezpena. Errebal Plazaia.



ZAPATUA 7

ZUMBATOI MOREA

11:00/12:15 Martxoaren 8a ospatzeko. Eibarko Udal Dantza Eskolaren eskutik. Errebal Plazaia.

JOSTE-TAILERRA

11:00/12:30 Koletero bat sortu eta oinarritzako puntadak ezagutu. Ipuruko Merkatu Plazaia.



AUTODEFENTSA TAILERRA

11:00 Autodefentsa feminista tailerra, Itaiak antolatuta. Ronin Club-en.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

12:30 "Quimera" (La Fam Teatre). Kale-antzerkia. Untzaga-Errebal (19:00etan Errebal-Untzaga).

TAILERRA

17:00 "Zer-nolako beharra emakumeena!". Euskaraz. Doan (aurretik izena eman behar da). Armagintzaren Museoa (Portaleko 5. solairua).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00 "A la gloria con Gloria Fuertes" (Teatro de Malta). 5 euro. Coliseo.

MUSIKA

19:00 Krifis eta Green Sun Cult taldeen kontzertua. Zai-zoi taberna.

MARTXOAK 8

22:00 Gaueko manifestazioa, Matrakak antolatuta.

DOMEKA 8

MARTXOAK 8

11:30/13:00 Kafe-tertulia. Untzaga (euriarekin Arrate Kultur Elkartean). **13:30** Manifestazioa, Untzagatik. **14:00** Karropoteoa. **15:30** Bazkari autogestionatua. Jarraian jolasak (euriarekin Errebalen). **18:00** Egunaren bukaera. Antolatzaileak: Matraka eta Marasmia, Euskal Herriko Mugimendu Feministarekin bat.

MUSIKA

12:30 Eibarko Ekos Abesbatza eta Gasteizko Oskarbi Emakumeen Abesbatza-ren kontzertua. Coliseo.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

COLISEO KLAZINEMA

19:30 "The Color Purple" ("Purpura kolorea", 1985), Steven Spielberg zuzendariaren filma. 5,5 euro. Coliseo.

ASTELEHENA 9

KANTU-SAIOA

19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.

MARTITZENA 10

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa klubaren saioa: Karmele Etxebeste, "Zoriona, edo antzeko zerbait" liburuari buruz. Dinamizatzailea: Ainhua Aldazabal.

Eibarko Liburutegiak...eta kitto! Euskara Elkartearen elkarlanean antolatuta. Portalea (Batzartoki 1-2).

MENDI JARDUNALDIAK

19:00 "Red-Bull X-Alps, mendiko lasterketa eta parapentea" ikus-entzunezkoa eta solasaldia, Mattin Iñiguezen eskutik. Euskaraz. Doan. Eibarko Klub Deportiboak antolatuta. Klub Deportiboa.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Kaka" (Erika Olaizola & Xanti Agirrezabala). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

EGUENA 12

JARDUNALDIA

10:00/14:30 "Instalazio fotovoltaiakoak". Eguzki-sektoreko profesional eta ikasleentzako topaketa espezializatua. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola, Eibarko atala (San Andres aretoa).

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

ERAKUSKETAK

Martxoaren 6tik 15era

"SAI art", Isabel Huertosen arte-garaikide erakusketak. Untzaga gizarte etxea.

Martxoaren 22ra arte

"Greba orokor feminista-rantz", Martxoak 8 Lantaldearen eskutik. Portalea.

Martxoaren 31ra arte

"Greba orokor feminista-rantz", Martxoak 8ko lantaldearen eskutik. Andretxea.




- **7an: 22:30**
- **9an: 19:30**



- **7an:** 22:30
- **8an:** 20:00
- **9an:** 19:30



- **7an:** 19:45, 22:30
- **8an:** 17:00, 20:00
- **9an:** 19:30



- **8an:17:00**



**Felisa
Bolinaga Askasibar**

3. URTEURRENA

2023/03/06

**Amama! Asko
botatzen zaittugu
faltan. Urtero
bezala marianito
“preparau” batekin
gogoratuko zaittugu!
Maite zaittugu.**

- ETXEKOAK -



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **IRIA!**
Martxoaren 11n
3 urte beteko dozuz
eta. Asko maite
zaiztugu, sorgintxo!



Zorionak, **MALEN**
Gisasola! Martxoaren
8an 10 urte
beteko dozuz eta.
Patxo haundi bat
famelixa
guztiaren partez.



Zorionak **IÑAKI!**
Gure etxeko
futbolariak 6 urte
bete dittu eta. Musu
haundi bat famelixa
guztiaren partez.



Zorionak **ANDER!**
Otsailaren 27xan
6 urte bete zendu-
zen eta. Asko maite
zaiztugu, txapeldun!
Patxito haundi bat
Julenen partez.



Zorionak **JON!**
10 urte bete
dittuzu eta. Patxo
haundi bat etxe-
kuen partez.



Zorionak **IBAN!**
Datorren eguazte-
nian 11 urte beteko
dozuz eta. Muxu
haundi bat etxe-
kuen partez



Zorionak **NORA!**
Martxuaren 5ian
10 urte bete dittuzu.
Musu haundi bat
aitta, ama eta
famelixa guztiaren
partez.



Zorionak **VIGGO!**
Martxoaren 5ian
3 urte bete dittuzu.
Patxo haundi bat
etxekuen partez.
Asko maite zaiztugu.



Zorionak **MALEN!**
3 urte bete dittuzu
eta. Jarraitu gure
bizitzak alaitzen.
Besarkada eta musu
haundi bat fameli-
xaren partez. Asko
maite zaiztugu.



Zorionak **LAIA!**
Atzo 11 urte bete
zenduazzen eta.
Musu haundixa
etxekuen partez.



Zorionak **MARTXEL** eta **ENEKO!**
Atzo urtiak egin zenduezen!
Besarkada eta musu haundi bat
Amañatarren partez. Gora martxoak 5!



6. URTEURRENA

2020/03/07

"Geurian egunero,
CLARITA"

MAITE ZAITUGU

ETXEKOAK

eta

LAGUNAK



Miguel
Espilla Astigarraga

2026/03/04

"Betirako izango
zaiztugu gogoan,
Miguel"

- JONEN KUADRILLA -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
• Emakumeak pisu edo logela bat alokatuko luke. 742099074.
3. LOKALAK
3.2. Errentan
• Ipuruan, batez ere J.A. Mogel inguruan, garajea alokairuan hartuko nuke. 646369330.

4. LANA
4.1. Lan bila
• Mekanika ingeniaria eskaintzen da edozein motatako lanak burutzeko: Igeltzeritza, iturgintza, elektrizitatea, pintura... 641838914.
• Emakumea eskaintzen da interna bezala lan egiteko, nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 643860541.
• Gizona eskaintzen da tinda-gigeko laguntzaile gisa, ostalaritzako laguntzaile gisa edota garbiketa lanak egiteko. 602339328.
• Emakumea eskaintzen da interna bezala lan egiteko edo orduka, ume zein nagusiak zaintzeko, edota garbiketa lanetarako. 613314603.
• Neska eskaintzen da nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanetarako... 632119320.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanetarako... 643342975.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanetarako... 632642320.
• Emakumea eskaintzen da garbiketa, supermerkaturko hornitzaile, sukalde laguntzaile edo margoketa lanak egiteko. 742099074.
• Tituludun erizaina eskaintzen da pazienteak zaintzeko, mugikortasun arazoak izan edo ez. Baita umeak zaintzeko ere. 641834341.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala, baita ospitaletan ere. Edozein ordu eta egunetan. 642852854.
• Emakumea eskaintzen da haurrak edota nagusiak zaintzeko,

baita garbiketa lanetarako ere. Edozein ordu eta egunetan. 643026656.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzako edozein lan motarako. 602040399.
• Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, edota umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. 643526006.
• Gizona eskaintzen da garbiketarako egiteko, edota pertsona nagusiak zaintzeko. 643526006.
• Mutila eskaintzen da erakuntzan, mendiak garbitzen baserrietan lan egiteko, e.a. 684810874.
• Emakumea eskaintzen da garbiketa lana egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 684810875.
• Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edota ostalaritza lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 652333106.
• Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edota ostalaritza lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 632065398,
• Erizaintzako Laguntzaile titulua eta Soziosanitario Ziurtagiria duen gizona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Eskarmentuarekin. 674889487.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala edo orduka, baita ospitaletan ere. Edozein ordu eta egunetan. 631425686.
• Emakumea eskaintzen da interna bezala lan egiteko, ume zein nagusiak zaintzeko, edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 602343572
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala, baita ospitaletan ere.

Edozein ordu eta egunetan. 642852854.
4.2. Langile bila
• Sukaldaria behar da Debabarrenetako jatetxe baterako. Esperimentziarekin eta kotxearekin. Curriculum bidali whatsapppe: 670672515.
5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitateak prestatzeko. Gehienez lau lagunekin taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK
6.2. Eman
• Ohe artikulatua salgai prezio onean. 618022434
• Zortzi hilabeteko 'huskey siberiarra' oparitzen da. 613 543774.
• Egoera oso onean dauden bi altzari oparitzen dira: 80 cm-ko zabalera eta 6 kajoiko egurrezko sinfoniera. 70 cm-ko zabalera eta 2 m inguruko altueradun egurrezko armairua. 658715978.



Cambridge Assessment
English

2026ko MAIATZA, EKAINA ETA UZTAILEKO AZTERKETAK

Authorised Exam Centre (ES 438)

EIBAR/DURANGO/ARRASATE

➔ MATRIKULAZIO EPEAK: MARTXOARENren 2tik 27ra

Azterketa	Datak	Tasak
STARTERS	EKAINAK 6	70 €
MOVERS	EKAINAK 6	72 €
FLYERS	EKAINAK 6	75 €
KET FOR SCHOOLS	EKAINAK 6	102 €
PET	EKAINAK 13	112 €
PET FOR SCHOOLS	MAIATZAK 30, EKAINAK 6	112 €
FCE	MAIATZAK 30, EKAINAK 20	200 €
FCE FOR SCHOOLS	EKAINAK 13, 20, 27	200€
CAE	EKAINAK 6, 20, 27, UZTAILAK 4	210 €
CPE	EKAINAK 6	225 €

Informazio eta matrikulak hemen:

Arrasate	Parlance	943 770683
	Idiomaster	943 790784
Bergara	Puente al Inglés	688 805494
	Stone House Hizkuntzak	943 760687
Eibar	Link Idiomas	943 203959
	Target Schools of English	607 833 613
Ermua	Akerlei	943 176632
	Academia Nekane Iturbe	607 480717
Elgoibar	ILS	943 744040
Oñati	Sounds Great	943 782091
Deba	English Square	648 268 206
	North Street English	652 448 646
Durango	Ibaizabal Ikastola	94 6215877
	Azoka Idiomas	688 729852
Markina	Bvrns Academy	946 203668
	Lea Artibai Ikastetxea	94 6169002
Elorrio	Zubialde English	946 167705
	Ontrack Hizkuntza	94 6584673
Berriz	Speak up	94 6225294
	Gogoz	943 604358

Neinor HOMES

EIBAR

ARRATE HOMES ERREALITATEA DA



**2 eta 3 logelako
etxebizitzak**

**Bisitatatu pisu pilotua
eta estreinatu etxebizitza
hilabete honetan bertan**

Gourmet aretoa | Gimnasioa

**APARKALEKUAK
ESKURAGARRI**

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Jarraitu **24 orduz** ZUZENEAN Hamaikan

24. korrika
Euskara gara
2024ko irailaren 24tik 2025eko irailaren 24ra

Ikusi eta deskargatu

ZURE KILOMETROA

www.hamaika.eus/24korrika

Egin zure kilometroaren bideoaren eskaera
eta bideoa jasoko duzu prest dagoenean



hamaika